



---

# TERRORISMO EZEZAGUNA

## ESKUIN MUTURRAK NAFARROAN EGINDAKO ATENTATU TERRORISTAK (1975-1985)

---

TXOSTENA  
2020



**IZENBURUA:**

Terrorismo ezezaguna. Eskuin muturrak Nafarroan egindako atentatu terroristak (1975-1985)

2. Argitalpen eguneratua.

**ARGITARATZAILEA:**

Nafarroako Gobernua-Gobierno de Navarra  
Herritarrekiko Harremanetako Departamentua  
Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Horixe Diseño

**L.G.** NA 2071-2021



---

# TERRORISMO EZEZAGUNA

ESKUIN MUTURRAK NAFARROAN  
EGINDAKO ATENTATU  
TERRORISTAK (1975-1985)

---

TXOSTENA  
2020



***“Biktimak elementu nagusiak dira bakea sendotzeko, justizia egiteko eta adiskidetzea sustatzeko prozesuetan, eta gogotik parte hartu behar dute horietan. Biktimen interesei lehentasun handia eman behar zaie”.***

*«Bake eta Justiziari buruzko Nuremberg-eko Adierazpena», 2007*

***«Giza Eskubideen urraketa larrien biktimen eskubideak aitortzea gure garaiko eginbeharririk funtsezkoena da».***

**BASSIOUNI, M. CH.**

*«International Recognition of Victims' Rights», 2006*

# AURKIBIDEA

1. SARRERA .....	7
1.1. HELBURUA .....	7
1.2. METODOLOGIA .....	8
1.3. IRISMENA .....	8
A) ALDIA .....	8
B) EDUKIA .....	8
1.4. EGILEAK .....	9
2. TESTUINGURU HISTORIKOA (1975-1985).....	11
2.1. OHAR BATZUK ESPAINIAKO TRANTSIZIOARI ETA ESKUIN MUTURREKO TALDEEN SORRERARI BURUZ .....	11
2.2. ZENBAIT OHAR ESPAINIAN SORTURIKO ESKUIN MUTURREKO TALDEEI BURUZ .....	13
3. ESKUIN MUTURREKO TERRORISMOAREN EZAUGARRIAK .....	16
3.1. OHAR BATZUK «EKINTZA TERRORISTAREN» DEFINIZIAZ ETA BERAREN EZAUGARRIEZ. 16	
A) ARAU-ESPARRUA 1975-1985 ALDIAN .....	16
B) ERABAKI JUDIZIALAK .....	17
C) TERRORISMOAREN KONTZEPTUA GAUR EGUN. DEFINIZIOAK: LEGEZKOA ETA DOKTRINAKOA .....	18
3.2. ESKUIN MUTURREKO TERRORISMOAREN EZAUGARRIAK .....	20
A) AURREKARIAK: LEHENAGOKO IKERLANAK ETA TXOSTENAK .....	20
B) ESKUIN MUTURREKO EKINTZA TERRORISTAREN EZAUGARRI BEREIZGARRIAK .....	21
4. ESKUIN MUTURRAREN BIKTIMAK AITORTZEAREN INGURUKO ARAZOAK .....	26
4.1. AITORPEN MOTAK .....	26
4.2. LEGEZKO AITORPENEAN ERAGINA DUTEN INGURUABARRAK .....	26
5. ESKUIN MUTURRAK NAFARROAN (1975-1985) EGINDAKO ATENTATUEN ZERRENDA (GUTXI GORABEHERA) .....	33
6. AZKEN HITZA .....	35
7. BIBLIOGRAFIA .....	37

# 1. SARRERA

Azken urteotan, nazioarteko komunitatean asko ari dira lanean giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen ageriko urraketen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren urraketa larrien biktimak aitortzearen alde, bai eta haiek egia jakiteko, justizia eta erreparazioa jasotzeko eta berriz ez gertatzeko bermeak edukitzeko dauzkaten eskubideen alde ere.

Eskubide horiek guztiak —edo, behintzat, haien alderdi nagusietako batzuk— giza eskubideen nazioarteko zenbait tratatutan jasota zeuden, baina Nazio Batuek are gehiago bultzatu dituzte Batzar Nagusiaren bi ebazpenen bidez: 1) 40/34 Ebazpena, 1985eko azaroaren 29koa, Delituaren eta Boterearen Abusuaren Biktimentzako Justiziaren Oinarrizko Printzipioei buruzko Adierazpena; 2) 60/147 Ebazpena, 2005eko abenduaren 16koa, Giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen urraketa nabarmenen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren urraketa larrien biktimek errekurtsioak jartzeko eta erreparazioa lortzeko duten eskubidearen inguruko oinarrizko printzipioei eta gidalerroei buruzkoa.

Aipaturiko bi testuak noizbait giza eskubideen urraketa larrien biktimen egiazko nazioarteko estatutu juridiko bilakatzeko asmoarekin sortu dira; gainera, arreta gunearen paradigma aldarazten hasi dira, orain artean biktimagileengan jarri izan baita batik bat.

Joera horrekin bat etorritz, Espainian urrats esanguratsuak egin dira giza eskubideen urraketa larrien biktimak eta beren eskubideak aitortzeko: bereziki, motibazio politikoko indarkeriari dagokionez. Bi eremu bereiz daitezke: errepresio frankistaren biktimak eta terrorismoaren biktimak.

Errepresio frankistaren biktimek, estatu mailan, abenduaren 26ko 52/2007 Legea balia dezakete, gerra zibilean eta diktadura garaian jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak aitortzen eta hedatzen dituen eta haien aldeko neurriak ezartzen dituen (Memoria Historikoaren Legea). Nafarroan, berriz, azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa (ekainaren 27ko 16/2018 Foru Legeak partez aldatu du).

Estatuan, Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babesteko irailaren 22ko 29/2011 Legeak eta hura garatzeko beste arau batzuek (erregelamenduak, kondekorazioak, elkarte eta fundazioentzako dirulaguntzak etab.) babesten dituzte terrorismoak jotako biktimak. Halaber, laguntza arauak prestatu dira autonomia erkidegoetan. Nafarroako Foru Komunitateak baditu apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legea, terrorismoaren biktimei laguntzekoa, eta martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legea, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei aitortpena eta ordaina ematekoa (azken horrek izendapen bereko apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legea zuzentzen eta ordeztzen du).

## 1.1. HELBURUA

Nafarroako Gobernuak Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak txostena egiteko eskatu zion Madrilgo Karlos III.a Unibertsitateari atxikitako “Bartolomé de las Casas” Giza Eskubideen Institutuari, Espainiako demokraziarako trantsizioak iraun zuen garaian Nafarroako Foru Komunitatean eskuin muturreko taldeen biktima izandakoen egoerari buruz. I+G proiektua izan zen (Unibertsitateen Lege Organikoa, 83. artikulua).

Ikerketaren helburua hauxe da: Nafarroan eskuin muturreko taldeek egindako ekintza terroristen biktimei eskubideak bete direnez argitzea. Hots, xedea da jakitea ea administrazio publikoek biktimei erreparazioa eman dieten, gertatutakoa ikerketa polizial eta judizialen bidez argitu den, eta biktimek legezko aitortpenik jaso duten.

Bereziki, azterlan honen jomugarik behinena egia jakiteko eskubidean sakontzea da. Horrez gainera, memoriaren balioa sustatu nahi da, iraganean gertaturikoa argitzen eta norbanakoen zein gizarte osoaren memoria eraikitzen laguntzeko.

## 1.2. METODOLOGIA

Azterlanak honako alderdi hauek jorratu zituen: eduki historiko zein juridikoko testuen azterketa bibliografikoa; legeriaren azterketa (indargabetua eta indarrean dagoena); ebazpen administratiboen eta judizialen kontsulta; aldizkarien berrikuspena eta elkarrizketa pertsonalak, erakunde publikoek (Estatukoek edo autonomia-erkidegoetakoek) biktima-aitortpenari buruzko egoera aztertzeko. Azkenik, kasuen zerrenda erantsi da, gutxi gorabeherakoa.

Hain zuzen ere, biktima izandako pertsonengana gerturatzea eta haien lekukotzak izan dira, ezbairik gabe, gure azterlanaren atalik hunkigarrienak, argigarrienak eta ekarpenik handienekoak. Egileek esker ona agertu nahi diete beren gizatasunagatik eta, askatasunez eta inolako interesik gabe, ikerketa honi egin dioten ekarpenagatik.

Eskuin muturreko taldeek Nafarroan egindako atentatuen biktimei eta haien senideei eta atentatua Nafarroatik kanpo sufritu zuten nafarrei egindako elkarrizketak ez dira argitalpen honetan jaso. Nafarroako Gobernuako Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren agiritegian gorderik daude. Lekuko bakoitzak eman duen baimen edo oniritziaren baldintzei jarraikiz jarriko dira eskueran.

## 1.3. IRISMENA

### A) ALDIA

Txostenak Espainiako trantsizio-aldia aletzen du, bai eta ondoko aldi bat ere, Nafarroako Foru Komunitatean indarkeria-ekintza terrorista batzuk izan ziren urteak biltzen dituen. Beraz, aldi historikoa hamar-kada bat da: 1975etik 1985era. Demokrazia Espainiara nola iritsi zen ulertzeko ezinbesteko garaia dugu

### B) EDUKIA

Ikerketa eskuin muturreko taldeen ekintza terroristak Nafarroan sufritu zituzten biktimekin eta ekintza terrorista Nafarroatik kanpo sufritu zuten biktima nafarrekin egin da. Saiatu gara biktimei ahotsa ematen, gertaerak bizipen eta lekukotasunen bidez berreraikitzen eta, batez ere, ezagutzen nolako zailtasunak edo gorabeherak izan diren Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusiaren aldetik (Espainiako Gobernuako Barne Ministerioa) legezko aitortpena eskuratzeko, izan ere, erakunde hori baita biktimen taldeari laguntza eta erreparazioa emateaz arduratzen den administrazio-unitatea.

Ikerketak ez du Nafarroako indarkeria berezi hori pairatu duten pertsona eta inguruabar guztiak zehatz-zehatz aztertzeko asmorik izan. Neurri handi batean, terrorismoaren biktima diren aldetik aitortpen administratiborik edo judizialik izan ez duten pertsona batzuen aurrean gaude. Urte anitz joan dira indarkeria jasan zutenetik; batzuek mesfidantza eta errezeloak izan dituzte ikerketan parte hartzeko; beste batzuek, aldiz, uko egin diote parte hartzeko gonbidapenari. Eta hori guztia gutxi balitz, oraindik ere, neurri batean, beldur dira testigantza eman arren jasan zuten atentatua nork egin zuen eta zer lagun izan zituen



argitu gabe geldituko ote den. *“Justiziarako eskubidearen ments”* horren ondorioz biktimak ez dira batere fidatzen ikerketa paraleloez, ezta unibertsitateko ikertzaile talde batek egindakoa bada ere. Eta hori ulergarria da. Nolanahi ere den, zoragarriak izan dira taldeari egin dioten harrera eta abegia eta eskaini dizkionten erraztasunak. Garapen edo hobetze pertsonalari buruzko egiazko jakinbidea emateaz gain, duintasun handia erakutsi dute herritar gisa.

Azterlanean ez dira biltzen Foru Komunitatean jazotako indarkeria-ekintza guztiak, baina Nafarroako eskuin muturraren atentatuen adierazgarri den emaitza erdietsi da. Hala, talde ideologizatu, zeharo oldarkor eta, neurri handi batean, inolako zigorrik jaso gabe jardun zuten horien zentzugabekeria terrorista erakusten duten hainbat egoera eta ekintza ezagutu ditugu. Ikerketa-taldea harremanetan jarri zen esparru askotako pertsonekin: ekintza terrorista maltzuraren helburu izan ziren irakasleak, enpresaburuak, kazetariak, liburu-saltzaileak eta abar.

Hala ere, argitalpen honen berri izan ondoren norbaitek uste badu Nafarroan eskuin muturreko taldeek egindako beste ekintza batzuei buruzko datuak, argibideak edo xehetasunak eman ditzakeela, Nafarroako Gobernuko Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusira jo dezake, eta ematen dituen datuak argitalpen honen beste edizio batzuetan plazaratuko lirakeke.

Testu hau 2019ko irailean aurkeztutako jatorrizko txostenaren bertsioa da.

## 1.4. EGILEAK

Honako hauek izan dira taldean:

### **JAVIER DORADO PORRAS. Ikertzaile Nagusia eta Proiektuaren zuzendaria**

Zuzenbideko doktorea da Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatean (2000) eta Zuzenbidearen Filosofiako irakasle titularra unibertsitate horretan bertan. Madrilgo Karlos III.a Unibertsitateko Giza Eskubideen Azterketa Aurreratuen Unibertsitate Masterraren zuzendaria da, eta unibertsitate horri atxikitako “Bartolomé de las Casas” Giza Eskubideen Institutuko zuzendariordea. Hainbat artikulu aldizkarietan, monografia eta liburu-kapitulu argitaratu ditu giza eskubideen urraketa larriei, justizia trantsizionalari eta delituen biktimen eskubideei buruz. Gaur egun UNESCOren “Giza Eskubideak eta indarkeria: Gobernua eta gobernantza” katedraren koordinatzailea da Madrilgo Karlos III.a Unibertsitateko “Bartolomé de las Casas” Giza Eskubideen Institutuaren barruan.

### **IGNACIO ÁNGEL PÉREZ MACÍAS. Ikertzailea**

Zuzenbideko doktorea da Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatean (2000). Bertan Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakaslea da, eta Oinarritzko Eskubideei buruzko online masterreko zuzendariordea da “Bartolomé de las Casas” Giza Eskubideen Institutuan. 2005. eta 2011. urteen artean Espainiako Gobernuko Barne Ministerioako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Goi Komisarioaren eta Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusiaren aholkularia izan zen. Bestetik, terrorismoaren biktimen hainbat fundazio eta elkarterekin lan egiten du, eta Andaluziako Terrorismoaren Biktimen Elkarteko ohorezko bazkidea da. Jarduneko abokatua ere bada.

### **CARLOS VILLALBA ÁNGEL. Ikertzailea**

Zuzenbideko lizentziaduna da Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean (1986), Kriminologian espezialista eta Historia Garaikidean eta Historia Militarrean aditua. Jarduneko abokatua da eta eskarmentu handia dauka Espainiako terrorismoaren biktimen ordezkari gisa. Besteak beste, Terrorismoaren Biktimen Andaluziako Elkartean eta Rodolfo Benito Samaniego Fundazioaren ohiko kolaboratzailea da.

**LIDIA SEÑARÍS CEJAS. Ikertzailea**

Kazetaritzako lizentziaduna da Habanako Unibertsitatean (1989), eta homologazio ofiziala du Espainian. Kazetaria, idazlea, editorea eta Gizarte Komunikazioko irakaslea eta aholkularia da. Kuban, Mexikon, Estatu Batuetan, Txilen eta Espainian ikasi eta lan egin du, eta giza eskubideei zein terrorismoaren gizarte-deslegitimazioari buruzko gaietan eta zabalkunde zientifikoaren esparruan espezializatu da. Aldizkariak eta liburuak idatzi eta editatu ditu Andaluziako Terrorismoaren Biktimen Elkartearentzat (AAVT), haren oho-rezko bazkidea dela, bai eta Terrorismoaren Biktimen Elkartearentzat (AVT) eta Rodolfo Benito Samaniego Fundazioarentzat ere.

## 2. TESTUINGURU HISTORIKOA (1975-1985)

### 2.1. OHAR BATZUK ESPAINIAKO TRANTSIZIOARI ETA ESKUIN MUTURREKO TALDEEN SORRERARI BURUZ

Aztertutako aldia bat dator, gutxi gorabehera, “Espainiako trantsizioa” deitutakoarekin, baina esan behar da horren iraupenak zenbait desadostasun sortzen dituela gaur egungo historialarien artean. Nafarroari dagokionez, eskuin muturreko talde terroristen jarduera nagusia Jurramendiko gertakariekin hasi zen, 1976ko maiatzaren 9an, eta gizartean oihartzuna galduz joan zen 1984-1985 bitartean.

Hamar urteko aldi horretan gizartea eta politika goitik behera aldatu ziren Espainian. Berrogei urtetik gorako diktaduratik European eta nazioarteko beste egitura batzuetan txertaturiko demokrazia homologatura igaro zen estatua. Ildo horretan, trantsizio-aldi hori, gehienbat, eredu prozesutzat hartzen bada ere, horrelako eraldaketa politiko guztietan bezala batzuek indarkeria baliatu zuten beren lehengo pribilegioei eusteko edo onura politikoa lortzeko. Izan ere, indarkeria politikoa berezkoa da aldaketa historiko guztietan.

Ikertzaile eta adituek arreta handiz aztertu dituzte, besteak beste, ETA, GRAPO eta FRAP taldeen jarduera terroristak, bai talde horien ekintzen emaitza izugarriagatik, bai jardueraren iraupen luzeagatik. Aldiz, Triple A, Batallón Vasco Español eta antzeko eskuin muturreko taldeen ekintzek sona txikiagoa izan dute gizartean. Ekintza horiek gizartearen sektore baten immobilismoaren adierazgarri nabariak izan ziren; izan ere, pertsona batzuk, botere frankistaren egituraren errota sektore integristek bultzatuta, guztiz prest zeuden beren jarrera politikoei kosta ahala kosta eusteko. Horretarako, indarkeria erabili zen herritarren gehiengo zabala beldurtu nahian, beren eskubideen alde jokatzeko ari baitziren kaleetan, erakundeetan eta komunikabideetan, sistema erabat demokratikoa aldarrikatuz.

Francisco Franco diktadorea hil ondoren, eskuin muturreko terrorismoa 1975etik 80ko hamarkadako lehen urteak arte Espainian ugaritu ziren talde indarkeria-zale eta terrorista neofaxista batzuen eskutik etorri zen, kasu batzuetan desegiten ari zen erregimeneko egiturek bultzatuta. Talde haiek kale-indarkeria erabili zuten batik bat, kontrako ideiak zituzten pertsonen aurka; hainbat izenekin aritu ziren: Batallón Vasco Español (BVE), Alianza Apostólica Anticomunista edo Triple A, Antiterrorismo ETA (ATE), Acción Nacional Española (ANE), Grupos Armados Españoles (GAE), Guerrilleros de Cristo Rey, eta beste asko. Nolanahi ere, historialari batzuen iritziz talde horien guztien buruzagia pertsona bera zen.

Garai hartan ardura publikoak zeuzkaten pertsona batzuek adierazi dute erakundeen babes zela ekintza horien eragile nagusia (Diego Carcedo, 2004). Francoren gaixotasunaren eta heriotzaren ondoko aurreneko aldian, ezegonkortasun politikoa nagusi zela, aldarrikapen demokratikoaren adierazpenen errepresioa Estatuko erakundeetatik antolatuta zen. Hala eta guztiz ere, botere-egitura demokratikoetarako bidea hartu zenean —frankismoaren barruan boterea zuten sektoreak ere tartean zirela—, sektore erradikalenek “*kontrolgabeak*” esaten zitzaizkien taldeak eta talde terroristak eratu zituzten.

Frankismoaren hondarrei lotutako eskuin muturreko indarkeria horren asmo politikoak eta helburuak argiak dira zenbait ikertzailearen aburuz: “Franco jenerala hil ondotik erregimena erreformatu egin zen, eta bertako kide aurreratuenek aparatu frankistaren egitura zaharren eraispen kontrolatua antolatu zuten, bien bitartean kalea kontrolatzen saiatzen zirela errepresioa erabiliz, atentatu inboluzionistak baliatuz eta

eskuin muturreko talde parapolizialen larderiazko ekintzen bidez. Praktikan, frankismoaren osteko politikari eskuindarrek kontrapisu gisa erabili zuten indarkeria hori beren hauteskunde-helburuei heltzeko eta trantsizioaren prozesua zuzentzeko, estatu frankistaren aparatua zaharkitua desarmatu eta joko-arau berriak adosten ziren bitartean...” (Sánchez Soler, 2010).

Herbert Nieburg-en indarkeria politikoaren definizioak aukera ematen digu aldi horretako eskuin muturreko ekintza terroristen ezaugarriak zehazteko: “Nahasmendua eta suntsipena xede duten ekintzak eta beren ondoriozko kalteak, baldin eta haien helburuak, jomugen edo biktimen hautaketak, inguruabarrek, exekuzioak edota ondorioek esanahi politikoak badute, hau da, gizarte-sisteman ondorioak izanzen dituen negoziazio-egoera batean besteen jokabidea aldatzeko egiten badira” (Nieburg, 1969). Hala, ukalezina da trantsizio-aldian indarkeria xede politikoak lortzeko erabili zela. Izan ere, indarkeria hura mehatxu larria izan zen Espainian demokrazia sendotzeko prozesurako eta aldaketa baketsuaren alde ari ziren buruzagi politikoei diseinatutako prozesuaren egonkortasunerako.

Lan honetan aztertutako terrorismoak ezaugarri bereziak ditu. Beharbada, eragile aktiboak, babesak, konplizitateak eta ingurune geografikoa dira ezaugarri esanguratsuenetako batzuk. Espainia osoan, eta bereziki Nafarroan, Estatuaren aparatuko zenbait sektorek babestu edo sustatu zituzten ekintza haiek, kasu askotan. Izan ere, Administrazioko funtzionario batzuk sistema politiko demokratikoa ezartzearen aurka zeuden, konbentzimendu ideologikoagatik.

Zenbait desadostasun (ñabardura ideologikoetan jatorria zutenak) alde batera utzita, eskuin muturreko talde terrorista horiek guztiak bat zetozen ezarritako ordenaren defentsan: haientzat, frankismoaren egiturak eta oinordekoak ziren ordena horren osagaiak. Beraz, orduan hasten ari zen demokraziarako prozesuaren aurkako jarrera sutua zuten. Gainera, Francoren erregimenetik eratorritako erritual, ikur, liturgia, esamolde eta sigla ugari erabiltzen zituzten.

Eskuin muturreko terrorismoa elite ekonomiko eta politikoen tresnetako bat izan zen, ia berrogei urtez boterearen monopolioa eduki ondoren ez baitziren gauza hiltzorian zegoen erregimen haren deskonposizioa eragozteko. Eskuin muturreko taldeen erroak 60ko hamarkadan hazi ziren, ideologiaren ikuspegitik nazionalkatolizismoarekin (faxismoaren bertsio espainiarra) konpromisorik gogorra zuten sektoreak, Gerra Zibilaren ondoren boterean egon zirenak, hautematen hasi zirenean, nolabaiteko irekiera eta modernizazio ekonomikoaren aldeko teknokratak gobernuan sartu zirelarik, beren pribilegioak eta boterea arriskuan zirela.

68ko maiatzeko gertaerek nolabaiteko eragina izan zuten Espainian, batez ere unibertsitatearen esparruan; hura aski izan zen eskuin muturrak erasoari ekiteko, eta falangistek, frankismoaren aldeko karlistek eta katoliko integristek osatutako talde parapolizialak antolatu ziren. Horrela sortu ziren Defensa Universitaria (DU) eta geroago, gobernuaren laguntzarekin, Acción Universitaria Nacional (AUN). Talde haiek urte batzuk geroago indarkeria-ekintza kriminalak egin zituzten talde ultren ernamuinak izan ziren. Urte haietan —60ko hamarkadaren amaiera eta 70eko hamarkadaren hasiera— Espainia osoan sortu ziren gerora eskuin-muturreko indarkeriara eman ziren taldeak, batzuk berez, nolabait esateko, eta beste batzuk aparatua frankistako kide nabarmen batzuen babespean: Partido Español Nacionalsozialista (PENS), Movimiento Social Español (MSE), Movimiento Nacional Revolucionario (MNR), Circulo Español de Amigos de Europa (CEDADE), Guerrilleros de Cristo Rey (GCR) eta abar. Guztiak ere bat zetozen Espainiako ultraeskuindarren artean aktiboena zen Fuerza Nueva (FN) taldearen ideologiarekin eta helburuekin. Hain zuzen, Franco hil ondoren Fuerza Nueva bildu ziren falangista, karlista, militar ultra, borrokalari ohi eta administrazio frankistari atxikitako pertsona immobilista ugari, eta indarkeria-ekintza asko egin zituzten.

Franco hil ondoren talde ultra haiek erakunde ofizialetatik kanpo jardun zuten, baina hil-hurren zen erregimenaren aldeko polizia zerbitzuek onartuta edo haiekin elkar hartuta. Paul Prestonek «Mendekuaren politika» izeneko lanean dioenez, *“argi dago erradikalismo erreakzionarioaren aktibazioa lotuta dagoela erregimenak urte haietan bizi izan zituen zailtasunekin”*. Eta gaineratzen du: *“Erregimenak bere onurarako erabili zuen muturreko talde horien erradikaltasuna, eta ez geroz eta handiagoa zen oposizioari aurre egiteko bakarrik (...), baizik eta inkonformisten era guztietako asmoak zapuzteko ere; gainera, jokaera erradikal hori baliatzen zuen bere burua moderatutzat eta zentristatzat jotzeko (...). Eskuin mutur fanatiko baten asmakuntzak zentroan ezarri zuen erregimena, aztikeriaz egin balitz bezala”* (Paul Preston, 2014).

Bestalde, Sophie Babyk, talde bortitz horien sorrera aztertu zuen «Trantsizio baketsuaren mitoa» liburuan: *“Franco hil ondoren, eskuin muturrak inoiz baino beharrezkoagoa zuen mobilizazioa, aurre egin behar baitziren berehala zetorren demokratizazioari eta Frankok ezarritako egituren desagertuari. Ohi bezala, ardatza mehatxupean zegoen erregimenaren defentsa zen azken batean, baina helburu behinena erreforma onez amaitzea eragoztekoa zen. Hala ere, trantsizioak eskuin muturraren gainbehera atzerazina ekarri zuen, eta pixkanaka-pixkanaka politikan eragiteko gaitasun oro galdu zuen”* (Sophie Baby, 2018).

Indarkeriara jotzea sakon errotuta dago eskuin muturraren ideoetan, eta Espainia salbatu beharraz justifikatzen ditu bere ekintzak. Indarkeria autodefentsa abertzalearen baliabide legez legitimatzen da, Samuel Johnson-en esaldi ospetsua egia bihurturik: *“Abertzaletasuna gizatxarren azken babeslekua da”*.

## 2.2. ZENBAIT OHAR ESPAINIAN SORTURIKO ESKUIN MUTURREKO TALDEEI BURUZ

Espainian oso lan nekeza da eskuin muturreko indarkeria politikoaren biktimen balantzea egitea. Iturri instituzionalek, historiografikoek, kazetaritzakoek eta biktimen elkarteek kopuru arras desberdinak ematen dituzte: 35 eta 65 hildako artekoak 1975-1982 aldian.

### ESKUIN MUTURREKO TERRORISMOAK HILDAKOAK 1975-1982 ALDIAN, HAINBAT ITURRIEN ARABERA.

ITURRIA	HILDAKOAK
TERRORISMOAREN BIKTIMEN FUNDAZIOA	33
COVITE	38
EUSKO JAURLARITZA	48
MARIANO SÁNCHEZ SOLER	65
SOPHIE BABY	68

Sophie Babyk 1975etik 1982ra bitartean eskuin muturrari egotzitako bederatzehun indarkeria-ekintzatik gora biltzen ditu bere lanean. Horren arabera 68 pertsona hil zituzten guztira, eta ekintzen ia bi heren ezin zaizkio talde jakin bati leporatu.

Fuerza Nueva (FN) eta beraren gazte erakundea (Fuerza Joven) indarkeria-ekintza gehien egin zituzten antolakundeak izan ziren Espainian. Eremu geografikoetan edo eraso zein beldurtu beharreko gizarte-taldeetan espezializatutako zenturiak ('soldadu taldeak') zituzten. 81 indarkeria-ekintza egotzen zaizkie bi talde horiei, eta guztira 14 hildako.



**1. GRAFIKOA.** Eskuin muturraren indarkeria-ekintzen bilakaera kronologikoa, urteka.

Iturria: BABY, SOPHIE: *Trantsizio baketsuaren mitoa*.



**2. GRAFIKOA.** Eskuin muturraren indarkeria-ekintzetan hildakoen bilakaera kronologikoa, urteka

Beste talde iraunkor eta aktiboenetako bat (1976-1982) Alianza Apostólica Anticomunista izan zen, Triple A ere esaten zitzaiona. Talde hark Argentinan, 1974an, poliziek eta militarrek herrialde hartako ezker iraultzailearen aurka ezkutuan borrokatzeko sortu zuten erakundearen izena bereganatu zuen. Triple A taldeak nolabaiteko espezializazioa landu zuen, eta erreforma politikoa babesten zuten prentsa-organoen aurkako erasoei ekin zien: El Papus, 1977; Punto y Hora, 1977; El País, 1978. Historialari batzuen aburuz (kasurako, Xavier Casals i Meseguer), Triple A egiazko erakundea baino zerbait gehiago izan zen, jatorrizko taldeak 1977tik aurrera lortutako sonaz baliatzen ziren eskuin muturreko zenbait talde autonomok erabilitako marka, alegia (Casals i Meseguer, 1998).

Eusko Jaurlaritzaren Terrorismoaren Biktimen Bulegoaren txostenaren arabera (2010), Triple A, Batallón Vasco Español eta Grupos Armados Españoles ongi antolatutako eskuin muturreko taldeak ziren, «*garai hartako polizia aparatuen sektore garrantzitsuenen tolerantzia handiarekin eta, batzuetan, konplizitate garbiarekin jarduten zutenak*», baina «*indarkeria-ekintza horietako askoren inguruko polizia-ikerketan hain izan zen urria eta akastuna ezen ezinezkoa izan baita berebiziko garrantzia daukan datu bat argitzea: zenbaterainokoa izan zen poliziaren barruko kide batzuen konplizitatea, laguntza edo inhibizioa ekintza kriminal haietan*». Ikerketa horren arabera, talde horiei 74 terrorismo-ekintza egozten zaizkie (66 hildako guztira), eta 33 kasutan bakarrik hasi ziren eginbide judizialak eta 17tan bakarrik eman zen epai irmoa.

Izen ugari horien itzalpean eskuin muturreko kideak, asaldatzaileak, mertzenario espainiarrak eta atzerri-tarrak (italiarrak, argentinarrak, frantsesak eta beste batzuk) ari ziren. Egia esatera, horietako asko talde batetik bestera ibiltzen ziren, eta siglak edo izenak beharrianen arabera erabiltzen ziren, batzuk beste batzuk baino gehiago, baina militantzia-egitura zorrotza eratu gabe.

Talde horietako batzuk (ATE edo BVE), edo haien siglak eta anagramak, ETAren eta beraren laguntzaileen aurkako ageriko gerrari lotu zitzaizkion, eta bete-betean sartu ziren terrorismoaren aurkako gerra ziki-nean (hori ikerketa honen xedeaz kanpo dago).

Historialarien artean bizirik dago oraindik eskuin muturraren indarkeria-estrategiaren jatorriari edo kausari buruzko eztabaida. Badirudi zentzuzkoa dela pentsatzea —eta hala egin zuen Paul Prestonek— lortu nahi zela larritasuna, segurtasunik eza eta botere-hutsunearen sententzia nagusitzea, herritarren sektore bati, politiko batzuei eta armadako kide batzuei sinestarazteko militarrek esku hartu behar zutela erreforma-prozesua gerarazteko eta frankismoaren oinordeko zuzena izanzen zen ordena edo erregimena berrezartzeko. Beste ikertzaile batzuek —Xavier Casalsek, adibidez—, ekintza haien izaera kaotikoa eta

antolamendu gabea kontuan hartuta, garai hartako eskuin muturra *“jardun armatu espontaneoan”* aritu zela diote, eta uste dute irudipena baizik ez zela ekimen autonomo haiek guztiek batera ari zirelako ustea, hau da, taktika bateratuarena ilusioa besterik ez zela.

Hara zer dioen Sophie Babyk: *“Eskuin muturreko taldeek trantsizioan egindako indarkeria-ekintzak, hasiera batean, arriskuan zegoen ordenaren hondamendia eragozteko defentsa-erantzun gisa gertatu ziren, argi eta garbi (...). Hala ere, azterketak erakutsi du helburu nagusia ez zela mehatxatutako eremu ideologiko bat babestea soilik, baizik eta arerioek okupatutako espazio publikoa birkonkistatzea”. Gainera, indarkeria haren helburua “espazio publikoaren birkonkista zen, politikoa eta sinbolikoa”. Halaber: “Intentsitate txikiko indarkeria-ekintzak ekintza guztien hiru laurdenak baino gehiago dira. Horien artean, kalte materialak eragin dituzten atentatuak (% 25) eta ordena publikoaren asaldurak (% 27) dira nagusi, eta ondoren mehatxuak (% 14) eta eraso fisikoak (% 9) datoz. Horiek guztiek esanahi politiko bikoitza dute; izan ere, batetik, konnotazio sinboliko handiko kultura-arloko indarkeria-ekintzak dira; bestetik, zuzenean gizartearen aurka jotzen duten indarkeria-ekintzak” (Sophie Baby, 2018)*

Indarkeria, gainera, ez zen zentzugabea; aitzitik, jomuga argiak zeuzkan: gizarteko ezkerren ordezkari ezagunenak, militanteak, lan-arloko abokatuak, sindikalistak, kazetariak, liburu-saltzaileak. Horien guztien osotasun fisikoaren edo ondarearen kontra jotzen zuten.

Nolanahi ere, inolako zalantzarik gabe, indarkeria horrek kalte handia egin zion demokrazia sendotzeko bidean aurrera egin nahi zuen gizarteari. Eskuin muturreko terrorismoak sufrimendu-arrasto sakona utzi zuen pertsonetan eta gizartean, eta hori ez da artatu terrorismo-indarkeria jasan duten pertsona guztiek merezi duten justiziarekin.

Hurrengo atalean xehetasun gehiagorekin azalduko dira indarkeria horren ezaugarriak.

### 3. ESKUIN MUTURREKO TERRORISMOAREN EZAUGARRIAK

#### 3.1. OHAR BATZUK «EKINTZA TERRORISTAREN» DEFINIZIOAZ ETA BERAREN EZAUGARRIEZ

«Terrorismoaren» formulazio bateratuaren inguruko eztabaida ez da berria. Nazioartean, ezaguna da estatuak ez datozela bat ekintza horiek argi eta garbi zehazten dituzten tresna juridiko lotesleak garatzeko orduan. Horregatik, legeria nazionaletara jo behar da terrorismo delitu gisa tipifikatutako ekintzak finkatzeko. Gainera, beste zailtasun bat ere badago: arau nazionalak bilakaera izan dute, eta egungo definizioak ez dira aztergai dugun aldian (1975-1985) indarrean zeudenak. Horregatik, doktrinak, literatura espezializatuak eta zenbait erabaki judizialek ekintza horien bereizgarriak ulertzen lagunduko digute.

##### A. ARAU-ESPARRUA 1975-1985 ALDIAN

Diktadura frankistaren azken urteetan —ETA talde terroristaren ekintzak goraka ari zirela— terrorismoaren errepresioarekin batera demokrazia iritsi ondoren ere iraun zuten berriazko arauak onartu ziren.

Jurisdikzio militarrek bere gain hartu zuen batez ere anarkistek, komunistek eta separatistek egindako ekintzak epaitzeko ardura. 1971. urtean, Franco diktadoreak Justizia Militarren Kodea (1945) aldatu zuen terrorismo delituei buruzko artikulua berriak gehitzeko. Horiek guztiak azaroaren 15eko 42/1971 Legean ezarri ziren. 1975. urtean —diktadorea hil baino bi hilabete lehenago— 10/1975 Lege Dekretua onartu zen. Dekretu hark nabarmen zabaldu zuen jokabide terroristen katalogoa, eta asko gogortu zituen ezarri beharreko zigorrak.

Arau horiekin batera, 1973ko Zigor Kodea aldarrikatu zen (3096/1973 Dekretua, 1973ko abenduaren 12ko BOE). Hasierako testuan hiru tokitan aipatzen zen terrorismoa: 17. artikuluan (ezkutatzea), XII. kapituluaren tituluan (terrorismo delituak) eta kapitulu horren 2. atalean (260.-264. bitarteko artikulua).

Delitu-ekintzak terrorismotzat jotzeko, helburua hauetako bat izan behar zen:

- 1) Estatuaren segurtasunaren, haren lurraldeen osotasunaren, batasun nazionalaren, erakunde-ordenaren edo ordena publikoaren aurka egitea (260. artikulua).
- 2) Herri bateko biztanleak edo bertako klase edo sektore jakin batzuk beldurtzea mendeku edo errepresalia sozial edo politikoak egiteko (261. artikulua).
- 3) Pertsonak hertsatzea edo mehatxatzea, 260. artikuluan deskribatutako helburua lortzeko.
- 4) Taldean jardutea bake publikoaren aurka egiteko, ordena asaldatzeko, pertsonen kalte edo iseka egiteko, ondasunetan kalteak egiteko, bide publikoak oztopatzeko edo eraikinak okupatzeko.

Horrela, aldi berean zenbait xedapen eta jurisdikzio egon ziren indarrean ekintza terroristen inguruan. Alde batetik, jurisdikzio militarra aplikatzen zitzairen erakunde iraunkorrenei; bestetik, Zigor Kodea erabiltzen zen banakako terrorismo ekintzak epaitzeko. Demokrazia iritsi zenean, egoera aldatu egin zen: Justizia Militarren Kodearen aplikazioa bertan behera utzi zen eta terrorismo delituak erabat txertatu ziren 1973ko Zigor Kodean.



Hala, 1977ko urtarrilean 3/1977 Errege Dekretua jarri zen indarrean, eta “ondoriorik gabe utzi zituen jurisdikzio militarri esleitutako terrorismoaren arloko eskumenak”. Hauxe ezarri zen: *“Terrorismo delituen kausen instrukzioa, ardua eta epaitza Instrukzioko Epaitegi Zentralei eta Auzitegi Nazionalari baino ez dagozkie”*. Era berean, Justizia Militarren Kodean araututako delitu batzuk Zigor Kodera eramán zituen.

1978an talde edo banda armatuek egindako delituen inguruko neurriei buruzko ekainaren 30eko 21/1978 Errege Lege Dekretua ere onartu zen, «terrorismoaren aurkako Espainiako legea» esaten zaiona. Kongresuko Diputazio Iraunkorrek 1979ko otsailaren 6an baliozkotu zuen errege lege dekretu hori.

Aldi horretan, ezin da aipatu gabe utzi 1978ko Konstituzioak egiten duen berariazko erregulazioa. Horren haritik, esan ohi da *“terrorismoaren kontzeptu juridikoa, Espainian, oso lotuta dagoela Konstituzioaren testuarekin”* (De la Cuesta, 2003). Izan ere, 55.2 artikulua *“banda armatuen edo elementu terroristen jarduren inguruko ikerketei dagokienez, pertsona jakin batzuen”* eskubideak eta askatasunak eteteko modua arautzen du.

Konstituzioak tratamendu bera ematen die «talde terroristetako» kideei eta «banda armatuetako» kideei. Parekatze horrek berekin dakar Konstituzioa garatzen duten arauak berariaz barneratzea «banda armatuen» jarduna. Hala, 1984. urtean abenduaren 26ko 9/1984 Lege Organikoa onartu zen. Lege horrek konstituzio-kontrakotasuneko bi errekurtso eragin zituen (bata Kataluniak aurkeztu zuen eta bestea Euskal Autonomia Erkidegoak), eta Konstituzio Auzitegiak Espainiako terrorismoaren aurkako borrokan eragin handia zuen gai bati buruzko iritzia ematera bultzatu zuen: «banda armatuaren» esanahia.

## B. ERABAKI JUDIZIALAK

Konstituzio Auzitegiak bere ebazpena eman zuen 1987ko abenduaren 16ko 199/1987 epaiaren bidez. Epai hartan Konstituzio Auzitegiak «banda armatua» kontzeptuaren interpretazio murriztailearen alde egin zuen, eta «elementu terrorista» kontzeptuarekin lotu zuen, garrantziari eta irismenari dagokienez. Horren haritik, kontuan hartu beharreko elementu batzuk aipatzen zituen:

- 1) Taldearen iraunkortasuna eta egonkortasuna.
- 2) Taldearen izaera armatua: defentsako edo gerrako armak, substantzia eta tresna lehergarriak.
- 3) Gizartean izua sortzeko behar besteko ahalmena edukitzea.
- 4) Gizarteak baztertzea.
- 5) Herritarren segurtasunean eragin handia izatea.
- 6) Egindako ekintza gizarte demokratiko osoaren aurkako eraso izatea.

Konstituzio Auzitegiak argitzen duenez, “armaturik jarduten duten beste pertsona edo taldeen kasuan, «banda armatuak» esapiderearen beste edozein interpretazio zabalagorik egiten bada (...), baldin eta gizartean izua eragin gabe eta zuzenbide estatuaren ordena demokratikoa eta konstituzionala aldatzeko helbururik gabe eta modu objektiboan arriskuan jarri gabe jarduten badira, jarduera horrek ez luke Konstituzioaren 55.2 artikulua (eskubideak eta askatasunak etetea) dakarren ondorioa”.

Konstituzio Auzitegiak honela arrazoitu zuen bere ebazpena: “[...] Larrialdia edo, behinik behin, etete mota hori ahalbidetzen duen arau-esparrua sortzeko legegilea legitimatzen duen egoera, hain zuzen ere, pertsonen bizitzaren eta osotasunaren aurka eta ordena demokratiko eta konstituzionalaren iraupenaren aurka egiazko arriskua sortzen duten «banda armatuek edo elementu terroristek» egindako delitu-jardueren ondoriozkoa da. Gure garai honetan ohikoa den terrorismo mota, indarkeria sozial edo politiko antolatua den aldetik, ez da «terroristatzat» har daitezkeen banako jarduera batzuetara mugatzen; aitzitik, eskuarki «armatuak» izaten diren erakundeen edo taldeen («banden», azken finean) jarduera propio gisa agertzen

zaigu. Jarduera terroristaren bereizgarria da —hain zuzen ere delitu-jarduera hori sistematikoa, aldian behingoa eta, askotan, bereizketarik gabea izatearen ondorioz— gizartean alarma edo segurtasunik eza zabaltzeko asmoa izatea edo, nolana ere, eragin hori erdiestea (...)”.

Auzitegi Gorenak ere gai horri heldu zion 1998ko uztailaren 29ko 2/1998 epaian. Hala, «*banda armatu*» bateko kidea izateko honako elementu hauek behar dira:

- 1) Banda benetan izatea, hau da, delituak egitea xede duen elkarte izatea. Ez da beharrezkoa taldeak berariaz araututako forma juridikoetako bat edukitzea: aski da pertsona bat baino gehiago elkartzea helburu jakin baterako eta elkartzeak iraupen jakina edo egonkortasuna edukitzea.
- 2) Banda armatua izatea, hau da, delitu-jardunean armak erabiltzea, halakotzat honako hauek hartuta: edozein motatako suzko armak, eskuko bonbak, granadak, lehergailuak edo antzeko beste tresna batzuk, hau da, behin eta berriz edo behin bakarrik, indar handiz, erabiltzeak herritarrengan alarma eta herritarren bizikidetzan asaldura eragin dezaketenak.
- 3) «Banda armatua» kontzeptuaren interpretazio murriztailea: Auzitegi Gorenaren zigor arloko salaren jurisprudentziarekin eta Konstituzio Auzitegiaren 199/1987 epaian ezarritakoarekin bat etorriz (4. oinarri juridikoa). «*Banda armatua*» kontzeptua ezin da bereizi «*elementu, antolakunde edo talde terrorista*» kontzeptutik, horrekin lotuta baitago, bai Konstituzioan (55.2 artikulua), bai gai hori arautu duten legeetan eta garai hartan indarrean zegoen Zigor Kodean (515.2 artikulua eta 571.-577. bitarteko artikulua).
- 4) Dauzkaten armen erabilera edo egiten dituzten delituak direla eta, talde horiek herritarren segurtasuna asaldatzea, eta asaldatu ere hain modu larrian ezen esan baitaiteke eragozten dutela herritarren ohiko bizikidetzan berezkoak diren oinarrizko eskubideak normaltasunez erabiltzea, zeina ordena politikoaren eta gizarte bakearen nahitaezko oinarrietako bat baita (Espainiako Konstituzioa, 10.1 art.). Beraz, taldeek beldurra sortu behar dute gizatalde jakin batean edo, oro har, gizarte osoan, hori terrorismoaren bereizgarria da eta.
- 5) Bidegabekeriaren elementu subjektibo berezia (hau da, delituarena): Ez da nahikoa bandaren ekintzek modu objektiboan herritarrengan segurtasunik eza eragitea. Beharrezkoa da haren helburua izatea segurtasunik eza edo beldur kolektiboa sortzea, dela ezarritako ordena konstituzionala iraultzeko, dela, halako subertsiorik gabe, bake publikoa larriki asaldatzeko.

Elementu horietan guztietan oinarriturik, Auzitegi Gorenak ebatzi du honako hauek direla «*banda armatuak*»:

- a) Ezarritako ordena aldatu nahi dutenak, hau da, egungo sistema juridikoaren arabera, Konstituzioaren 1. artikulua jasotzen duen zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa aldatu nahi dutenak.
- b) Demokrazia suntsitu nahi duten erakundeen aurkako borrokan gure demokrazia sendotzeko helburu nagusiari lotuta, berehalako helburutzat bake publikoa larriki asaldatzea dutenak, dauzkaten armak erabiliz edo eragiten duten alarma kolektibo bereziko delitu mota zehatza eginez, herritarren bizikidetzaren normaltasuna aldarazteko gai direnak, ohiko bizikidetzarik gabe ezin baitira behar bezala egikaritu gure ordenamendu konstituzionalean aitortutako oinarrizko eskubideak: bada, hortaz, gure funtsezko legearen aurkako atentatua.

### **C) TERRORISMOAREN KONTZEPTUA GAUR EGUN. DEFINIZIOAK: LEGEZKOA ETA DOKTRINAKOA.**

Nazio Batuen Erakundearen iritziz «terrorismotzat» jo daitezke “helburu politikoak dituzten ekintza kriminalak, herritar guztiengan, pertsona talde batengan edo pertsona jakin batzuegan beldur-ikara eragite-

ko antolatu edo taxututakoak”. Erakundeak zehazten duenez, halako ekintzak “justifikaezinak dira egoera guztietan, edozein izanda ere haiek justifikatzeko baliatzen diren arrazoi politikoak, filosofikoak, ideologikoak, arrazakoak, etnikoak, erlijiosoak edo bestelakoak” (49/60 Ebazpena, Nazioarteko terrorismoa ezabatzeko neurriei buruzkoa, 1995eko otsailaren 17koa).

Europar Batasunak (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko martxoaren 15eko 2017/541 Zuzentaraua) terrorismotzat jotzen ditu “zuzenbide nazionalaren arabera delitu gisa tipifikatuta dauden ekintzak, izaera edo testuingurua dela eta herrialde bati edo nazioarteko erakunde bati kalte larria egiten diotenak eta helburu hauetako baten ildoan egiten direnak:

- a) Herritarrak larriki beldurtzea.
- b) Botere publikoei edo nazioarteko erakunde bati bidezkoa ez den eran presioa egitea, zerbait egiteko edo ez egiteko.
- c) Herrialde bateko edo nazioarteko erakunde bateko funtsezko egitura politikoak, konstituzionalak, ekonomikoak edo sozialak larriki desegonkortzea edo suntsitzea”.

Europako zuzentarauak delitu horiek eskubide nazionaletan tipifikatzeak duen garrantzia azpimarratzen du. Hala, indarrean dagoen Espainiako Zigor Kodeak (10/1995 Lege Organikoa, martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoa aldatua) honako hau ezartzen du VII. kapituluaren (“Erakunde eta talde terroristak eta terrorismo delituak”) 573. artikuluan:

«1. Terrorismo delitutzat hartuko da, kode honetan araututa dagoen bezala, bizitzaren edo osotasun fisikoaren, askatasunaren, osotasun moralaren, sexu askatasun eta ukigabetasunaren, ondarearen, baliabide naturalen edo ingurumenaren, osasun publikoaren, hondamendi arriskuaren, sutearen, dokumentuak faltsutzearen aurkako delitu larriak, Koroaren aurkakoak, bai eta atentatuak egitea, armak, munizioak edo lehergailuak edukitzea, horiek trafikogai hartzea edo gordailutzea, edo aireontziak, itsasontziak edo bestelako garraiobide kolektiboak nahiz salgaiak atzematea, helburu hauetakoren batekin egiten denean:

- 1.a Konstituzioaren ordena iraultzea, estatuaren erakunde politikoaren edo egitura ekonomiko edo sozialen jardunbidea modu larrian ezereztea edo desegonkortzea, edo botere publikoak egintza bat egitera edo ez egitera behartzea.
  - 2.a Bake publikoa larriki asaldatzea.
  - 3.a Nazioarteko erakunde baten jardunbidea larriki desegonkortzea.
  - 4.a Biztanleriari edo biztanleriaren zati bati beldur-ikara eragitea.
2. Era berean, terrorismo delitutzat hartuko dira 197 bis eta 197 ter artikuluetan eta 264. - 264 quater bitarteko artikuluetan tipifikatutako delitu informatikoak, egitateak aurreko paragrafoan aipatutako xedeetako batekin egiten direnean.
3. Halaber, terrorismo delitutzat hartuko dira kapitulu honetan tipifikatutako gainerako delituak.»

Indarrean dagoen 29/2011 Legeak, terrorismoaren biktimak aitortu eta osorik babestekoak, honako hau ezartzen du 3. artikuluan: «*Ekintza terrorista*» da «*erakunde edo talde kriminaletan elkartutako pertsonak egiten dutena, baldin eta erakunde edo talde horien xedea edo helburua konstituzio ordena iraultzea edo bake publikoa larriki asaldatzea bada*». Lege hori «*helburu horiek lortzeko xedearekin egiten diren ekintzen biktimei ere aplikatzen zaie, nahiz eta horien arduradunak esandako erakunde edo talde kriminaletako ki-deak ez izan*».

Adituek, irakasleek eta ikertzaileek ere landu dute terrorismoaren definizioa. Esparru akademikoan eta esparru zientifikoetan terrorismoaren elementu bereizgarriei buruzko zenbait gogoeta aurki ditzakegu.

Bruce Hoffman Georgetowngo Unibertsitateko irakasle eta ikertzailearen ustez terrorismoa *“beldur-ikara nahita sortzea eta ustiatzea da, aldaketa politikoa helburu duen indarkeriaren erabileraren edo indarkeria erabiltzeko mehatxuaren bidez”*. Terrorismoak honako osagai hauek dauzka (Hoffman, 1999):

1. Xede politikoak argudiatuz justifikatzen da.
2. Indarkeria baliatzen du.
3. Kalte psikologikoa egiteko asmoa dauka, biktimei egindako kalteez gainera.
4. Aginte-kate identifikagarria edo zelula-egitura jakina duten erakundeek zuzentzen dute.
5. Talde azpinazionalak egiten dute (hau da, estatu-mailakoak ez direnek).

Marc Sageman psikiatra forentse eta AEBko terrorismoaren aurkako aholkulariak, berriz, honela definitu du terrorismoa: *“estatu-mailakoak ez diren eragileek bake-denboran egiten duten indarkeria politikokoaren kategorizazio publikoa”* (Missunderstanding Terrorism, University of Pennsylvania Press, 2017).

Espanian, sarritan aipatzen da Txiki Benegasen definizioa. Honako elementu hauek proposatzen ditu:

1. Indarkeria erabiltzea helburu politikoak lortzeko.
2. Bereizi gabeko atentatuak egitea.
3. Beldur-ikara gizarte osora zabaltzea.
4. Propaganda-asmoa.
5. Mezuak zabaltzea.

Barne Ministerioak, Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak, Terrorismoaren Biktimen Oroi-men Zentroak eta Terrorismoaren Biktimen Fundazioak argitaratutako *“Terrorismoaren memoria eta prebentzioa”* hezkuntza proiektuko 1. unitate didaktikoan lau elementu aipatzen dira:

- a) Indarkeria klandestinoak: terroristek isilpean edo ezkutuan jarduten dute, justiziaren akzioa saihesteko. Klandestinitateak taldea bakartzea eta erradikalizatzea dakar.
- b) Beldur-ikara zabaltzea: horren bitartez terroristek aurkariak izutu nahi dituzte.
- c) Helburu politikoak ezarri nahi dituzte: terrorismoaren atzean botere-proiektu bat dago, indarkeria erabiliz menderatu nahi den erakunde edo antolakunde baten aurka bideratua.
- d) Propaganda-eragina: talde terroristek atentatuen eragina baliatzen dute beren eskakizunen berri zabaltzeko.

### 3.2. ESKUIN MUTURREKO TERRORISMOAREN EZAUGARRIAK

#### A. AURREKARIAK: LEHENAGOKO IKERLANAK ETA TXOSTENAK.

Eskuin muturreko taldeen indarkeria terrorista zenbait monografia, azterlan eta artikulutan landu dute ikertzaileek eta irakasleek. Kopuruari erreparatuz gero, terrorismo honi buruz ez da idatzi jihadistien terrorismoaz edo ETaren terrorismoaz beste, baina badaude ospe oso oneko liburu eta monografia batzuk (ikus kontsultatutako bibliografia).

Nolanahi ere, informazio-gabezia nabarmena dago administrazio-erakundeetan. Terrorismoaren biktimen arloko Espainiako legerian babes-maila oso handia lortu da kalte-ordainei, laguntzei eta aintzatespenei dagokienez, baina, hala ere, ezin da gauza bera esan estatistiken eta datu ofizialen argitalpenari buruz. Ia ezinezkoa da Gobernuak dauzkan kopuru-datuen berri jakitea herritarren eskura dauden baliabideetara jota. Zalantzarik gabe, Espainiako legegileak lege-dispositiboa hobetzeko aurre egin behar dien erronketako baten aurrean gaude.

29/2011 Legeak ez du ezer ezartzen Espainian gertatutako terrorismo-ekintzei buruzko datu ofizialen informazioari eta argitalpenari buruz. Horren barruan ekintza terrorista guztiak sartzen dira, talde guztienak. Espainian terrorismoaren fenomenoari buruz egiten diren azterlan eta ikerketa guztietan beti daude bi akats: datu ofizialen ziurgabetasuna eta eskasia. Ildo horretan, Terrorismoaren Biktimen Oroimen Zentro Nazionalak erronka larria du helburu hau betetzeko: “(...) biktimen memoria kolektiboa eraikitzea eta herritar guztiak kontzientziaztea, askatasuna eta giza eskubideak defendatzeko eta terrorismoaren aurka egiteko”.

Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzaren ahaleginen xedea ETA talde terroristak egindako “argitu gabeko atentatu terroristak” argitzea izan da, eta xede berarekin aritu da terrorismoaren biktimak ordezkatzeko dituen talderen bat ere, Terrorismoaren Biktimen Fundazioa, adibidez. Gainera, Arartekoak ere ez du egin eskuin muturreko indarkeriari buruzko txosten berariazkorik. Aldiz, ETAREN terrorismoari buruzko dokumentua badago.

Autonomia-erkidegoei dagokienez, nabarmentzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrak Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari (2007. eta 2008. urteak) eskatutako txostena, kontrolatu gabeko taldeek, eskuin muturrekoek eta GALEK egindako terrorismoaren biktimen errealitateari buruzkoa, arreta berezia jartzen duena biktimen identifikazioan eta indarrean dagoen legerian aitortutako eskubideetan.

## **B. ESKUIN MUTURREKO EKINTZA TERRORISTAREN EZAUGARRI BEREIZGARRIAK.**

Kontsultatutako lanen artean bereziki nabarmentzen dugu *¿Qué es la ultraderecha?* (1976), Ramón Pirena. Urte haietan egindako ekintzen deskribapen argigarria oso erabilgarria izan da azterlan honetan. Era berean, “Memoria eta terrorismoaren prebentzioa” hezkuntza-proiektuaren argitalpenetan azaltzen den eskuin muturreko terrorismoaren oinarritzko karakterizazioa erabiltzen dugu. Aipatutako proiektua Barne Ministerioak, Hezkuntza Ministerioak, Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroak eta Terrorismoaren Biktimen Fundazioak babesten dute.

Eskuin muturreko taldeek egindako ekintzen ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

### **1. Indarkeria fisiko eta psikologikoaren neurritz gaindiko erabilera irrazionala.**

Indarkeriaren eta indarkeria-mehatxuaren erabilera fenomeno terrorista guztien berezko ezaugarria da, taldea nolakoa den gorabehera (ezker muturrekoa, nazionalista, jihadistista zein eskuin muturrekoa). Beraz, ez dirudi eskuin muturreko taldeen jardunaren bereizgarria izan daitekeenik berez fenomeno terrorista guztien ezaugarria dena.

Eskuin muturreko taldeen kasuan, ezaugarri honi ñabardurak egin behar zaizkio:

- Indarra helburu jakin bat lortzeko erabiltzea, ideiak eta iritziak inposatzeko batik bat, estremisten berezko ezaugarria da. Muturreko pertsonen gogor jokatzeko dute; gainera, zorrotzak eta zakarrak izaten dira, eta pentsamendu zurruneak.
- Ekintza fisiko zehatzetan ez ezik, exekutatuzaileen pentsamolde oldarkorren eta probokatuzaileen ere islatzen da indarkeria.
- Indarkeria fisikoa da jarduteko modurik ohikoena: borrokak, karate edo borroka arteen teknikak, botila lehergarriak, suzko armak eta Molotov koktelak erabiltzen dituzte, eta bizikleta-kateak, burdinazko eskuzorroak eta eskularruak kolpeak emateko; bonbak eta lehergailuak jartzen dituzte; pertsonak bahitzen eta desagerrarazten dituzte; tratu txarrak, irainak eta tortura.
- Pentsamolde oldarkorra eta probokatuzailea hainbat modutan agertzen da: talde hauetako kideek amorratuta daudela ematen dute beti; beren arrazoibideak totalitarioak eta baztertzailak dira; “aldekia versus etsaia” bizi-eskema sinplista eta arriskutsua nagusitzen da; bizirik irauteko modu bakarra aur-

kakoa edo arerioa suntsitzea delako ustea dute. Beren arrazoibideak indar handiko esamolde soilen birtartez azaltzen dituzte: “denok bat edo gerra”; “nirekin edo nire kontra”. Ez dago lekurik pentsamolde alternatiborako, disidentziarako, bestek proposatutako konponbideetarako. Erljio-ideiak beren asmoen onurarako eta neurritz kanpo manipulatzten dituzte, eta kultura, jakintza-iturriak eta aurrerapena erabat gaitzesten dituzte.

- Maiz egiten dituzte pertsoneri edo gauzei kalte egiteko mehatxuak eta ohartarazpenak: mehatxu-gutunak; pintadak; eskuz idatzitako edo argitalpen-txatalekin egindako oharra; telefono-deiak ahotsa desitxuraturik; graffiti oldarkorrak, jabetzaren edo ondasunen aurkako eraso fisikoak edo ekintzak iragaritzen dituztenak. Barne Ministerioak lagunduriko argitalpenaren arabera, Espainian, 1975 eta 1982 urteen artean, eskuin muturreko taldeei 60 hilketa egozten zaizkie.

## 2. Ekintzak justifikatzea “*kolektibitatearen ezinbesteko premiak*” argudiatuz.

Ekintza terroristen egileek beti aurkitzen edo eskaintzen dute aitzakia edo justifikazioren bat indarkeria erabiltzeko. Aitzakia horiek “*zilegitasun moduko*” bat ematen diote egindako ekintzen irrazionaltasunari: esaterako, lurralde aldarrikapenak edo aldarrikapen separatistak, sinesbide erlijioso jakin baten hedapena eta ezarpena, edo errepresalia zilegia aurreko ekintza bati (militarra, politikoa, judiziala edo espetxe-zigorra) erantzuteko. Terroristek beti desenkusatu behar dituzte beren ekintza ankerrak zuribide edo estakururen bat baliatuz.

Eskuin muturraren terrorismoaren kasuan, ekintzen zuribidearen ardatza izan ohi da gizartea “*salbatu beharra*” beren ustez dauzkan arazo larrietatik, edota hura “*sendatu beharra*”. “*Presaka eta ezinbestean zerbait egin behar*” horrek ematen die ekintzetarako zilegitasuna. Horrela, “*gaitz kolektiboen askatzaile*” bihurtzen dira, eta “*gizartearen salbatzaile, nahitaez galdu edo narriatuko baita, baldin eta norbaitek berehala esku hartzen ez badu*”.

Ramon Pik “*mesianismoa*” esaten dio horri. Hau da, talde eta pertsona horiek “*besteak salbatzeko*” deiari erantzuten diote. Jarrera horren oinarrian dago “*jendartea salbatzeko hautatuak izan direlako*” ustea edo sinestea.

Espainian, gainera, eskuin muturrekoen pentsamenduan elementu lurtarrak eta zerutarrak nahasten ziren. Blas Piñar (1918-2014) eskuin muturreko espainiar notario, politikari eta idazle ezagunak honako hau adierazi zuen: “*Espainia misio bat da munduan, eta ez gaude prest Probidentziak Espainiari nazioarteko esparruan eman dion misio horri uko egiteko (...)*”. Ramon Pik honako hau ere esan zuen: “*Herritar batek uste badu Jaungoikoak hautatu duela gizatalde politikoa betiereko salbazioaren bidetik eramateko, ultraeskuindarra duzu*”.

Espainiako “*mesianismoa*” berezia da, gainera, katolikoa da eta: «Espainiar ultraeskuindar batentzat, espainiarra izatea katolikoa izatea bezalakoa da. Ez du ulertzen espainiar herritarrik egon daitekeenik, are gehiago, espainiarra izateaz harro dagoen herritarrik, ebanjelikoa, Jehovaharen lekukoa edo agnostikoa denik» (Pi, 1976).

Talde horiek beren ekintzen bidez zuzendu nahi zituzten “*gaitzak*” orduan ezartzen hasiak ziren askatasun demokratikoen ondorioak ziren: a) pentsamendu, adierazpen eta iritzi askatasuna; b) alderdien legezztatzea (besteak beste, Alderdi Komunistarena); c) parte hartze politikoa. Azken batean, demokrazia (frankismoaren aldean guztiz bestelakoa zen erregimena) ezartzeak berekin ekarri zuen talde horien salbamen-ekintzak justifikatzen zituen “*Espainiako gizartearen gaitzak ongi beharra*”.

## 3. Gorroto irrazionala bilakaerari eta aurrerapenari.

Talde horiek erabateko gorrotoa diete berritasun orori, gizartearen aurrerapenari, eta, azken finean, Espai-

niako gizarteak behar zuen ezinbesteko bilakaerari. Terroristen jardunari kontserbadurismo larria darie; iraganeko frankismoaren minez bizi dira, eta beren jarrera zurruna eta immobilista da.

Honetan eskuin muturra ez da beste talde terrorista batzuen oinarrian dagoen ezker muturreko ideologia bezalako. Kasurako, ezker muturreko talde terroristak marxismo-leninismoan oinarritzen dira eta "kualitatiboki hobea den gizarte ideala" aldeztzen dute, non "gizarte-klaserik ez dagoen eta gizakiak ez duen gizabanakoa esplotatzen; non diruak lekurik izanen ez lukeen, gizarte-aberastasuna zuzen eta modu ekitatiboan banatuko bailitzateke; non estatua desagertuko litzatekeen, haren orde z gailenduko bailitzateke elkartasunean, oparotasunean eta elkarrekiko laguntzan oinarritutako erregimena, hutsal utziko litzuzkeena estatuaren eta legeriaren tresna hertsagarriak". Aldiz, eskuin muturreko taldeen ustez ez dago berek defendatzen dituzten eredu politikoa eta gizartea baino hoberik eta, horregatik, tinko egiten dute iraganaren alde, bai eta ezagutu dituzten eta iraunarazi nahi dituzten gizarte-ordena eta bizimodua ahalbidetu zituzten errepresio-mekanismoen alde ere. Jarrera horri "ultraeskuinaren kronofobia" esan ohi zaio.

Horregatik, talde horien ekintza terroristari iragan-mina dario beti: galzorian zen diktaduraren erregimenearen mina. Bereziki, Espainian sortzen ari zen demokrazia berentzat kutuna eta desiragarria zen erregimen diktatorialaren etsaitzat zuten, eta hura defendatzen zutenak ere bai.

#### **4. Biktimak ondo aztertuta hautatzea.**

Terroristen estrategia da jendarte edo kolektibitate jakin batean beldur-ikara sortzea beren proiektua, idealak edo aldarrikapenak inposatzeko. Asmo maltzur hori erdiesteko bide irrazionala hartzen dute: pertsona askori kalte egitea atentatu masibo eta bereizketarik gabeak eginez (garraio-bideak, erostetxe handiak, jendea dabilen etorbideak, musika-emanaldiak). Beste kasu batzuetan, ostera, ekintzak aurreko horiek bezain irrazionalak eta gaitzesgarriak izan arren, biktimak hautatzen dira irizpide jakin batzuen arabera: lanbidea, talde politiko bateko kidea izatea, ideiak jendaurrean agertzea edo, besterik gabe, atxikimendu ideologikoa edo gizarte kidetasuna adierazten duen ekitaldiren batean parte hartzea.

Eskuin muturreko taldeen jardun terroristan ohikoa da jomugak alde aurretik hautatzea: profil jakineko pertsonak edo arrazoi bereziengatik kalte egin nahi dieten espazio fisikoak.

Ideologia aldetik beste muturrean dauden pertsonak hautatu ohi zituzten. Horrenbestez, intelektualak, kazetariak eta beren ideien aurkako alderdi politikoenkin bat egiten duten pertsonak (abertzaleak, komunistak, independentistak...) jotzen zituzten. Gainera, askotan hautatzen zituzten jakintzarekin eta kulturarekin lotutako zenbait lanbide ere: liburu-saltzaileak, liburuzainak, irakasleak etab. Terroristen ekintza ohikoenak (zartakoak, borra-kolpeak, makilakadak...) elkarretaratzetara edo aldarrikapen-ekitaldietara biltzen ziren pertsonen aurka erabiltzen zituzten, batez ere beren ideien guztiz kontrakoak ziren pertsonen aurka.

Era berean, talde horiek beren pentsamoldearen aurkako talde terrorista batean ari zirela edo halako bati laguntzen ziotela uste zuten pertsonen kontra ere jotzen zuten, ETA banda terroristako kide eta jarraitzaileen kontra, esaterako. Gure ikerketan antzeman dugunaren arabera, Nafarroan talde hauek emakumeen aurkako indarkeria-ekintzak egiteko joera zuten: emakume kazetariak, enpresaburuak, langileak, eta elkarretaratze publikoetan aritzen zirenak.

Gainera, leku jakin batzuk ere maiz kolpatzen zituzten: egunkarien egoitzak, liburu-dendak, arte-galeriak, film "iraingarriak" ematen ziren aretoak, antzokiak, eta musika-emanaldietarako aretoak. Halaber, erasoak egin zituzten alderdi politikoen lokalen, jatetxeen eta tabernen kontra ere.

#### **5. Ekintzak zigorrik gabe gelditzea eta ikerketa polizial eta judizialek arrakasta urria edukitzea.**

Terrorismoaren oinarritzko ezaugarria da klandestinitatea: indarkeria mota hori darabilten taldeek eta pertsonak isilean eta ezkutuka jarduten dute, justiziaren akzioa saihesteko eta beren helburuak betetzeko.

Poliziak eta epaileek ez dute beti arrakastarik izaten delitu horiek jazartzen eta zigortzen. Zailtasunak aurkitzen dituzte egileak, konplizeak eta estaltzaileak zehazteko eta identifikatzeko ikerketan; zigor-arloko epai kondenatzailea zailtzen edo eragozten duten eta kalteen ordaina deklaratzeko duten oztopo prozesalak ere suertatu ohi dira: ustezko egileak ihes egiten dute edo inork ez daki non diren; estradizio-eskaeretan akatsak egiten dira; froga gutxiegi; zigorren preskripzioa; ustezko egileen heriotza; amnistia legeak, indultuak...

Eskuin muturreko ekintza terroristen berezitasunetako bat da ikerketa polizialek eta judizialek gutxitan lortzen dutela egileak eta konplizeak nortzuk izan diren zehaztea. Ondorioz, ekintzetan nor aritu den ezin zehaztu izateak berekin dakar epaitegietan ia inoiz ez iristea kondena-ebazpenera. Kasuren batean, ikerketen bidez egileak identifikatzea lortu zen, baina gero zigorrik gabe gelditu ziren Amnistia Legearen aplikazioari edo indultuei esker.

Ramón Pik 1976rako emana zuen horren berri. Balorazio hura Konstituzioaren aurrekoa izan zen. Hala ere, demokrazia iritsi eta finkatu ondoren ere egoera ez zen aldatu eta eskuin muturreko taldeen atentatuak argitzeko ahaleginek ez zuten lehen baino atzen hobeia eduki.

Nafarroan egindako atentatuen eta Nafarroatik kanpo nafarren kontra egindako atentatuen biktimei eta haien senideei egin dizkiegun elkarrizketetan ohartu gara etsiturik daudela justiziaren jardunaren eraginkortasunik ezarengatik, logikoa den bezala, eta gainera uzkur direla salaketa aurkeztera (eta hori ezinbesteko urratsa da mekanismo poliziala eta judiziala abian ipintzeko). Atsekabe horretan eragin handia izan dute aurreko salaketek (ekintza jarraituen kasuan) sortu dituzten emaitza eskasek edo biktimek jasane behar izan dituzten gorabehera prozesalek, esaterako, ustezko egileak identifikatu behar izateak garai konplexu eta zail batean, non aldaketa politikoak bizi-biziak baitziren eta aldaketa orori datxekion nolabaiteko ziurgabetasuna nagusi baitzen.

## 6. Jarduneko taldeen zatiketa eta ugaritasuna.

Testuinguru historikoan (II. atala) adierazi dugu talde terroristak —Estatuan zein nazioartean jarduten dutenak— izen edo izendapen berezi batekin identifikatu ohi direla, edo anagrama batekin (hitz baten letrak beste era batera antolatuta sortzen den hitz berria), edo taldea adierazten duen ikur edo irudi batekin. Gainera, bandera moduko bat edo berariazko kolore batzuk ere erabili ohi dituzte identifikagarri gisa.

Ez dago arau finkorik. Taldean sartzea edo laguntzea erabakitzen dutenek —beren kabuz edo inork erakarrita— kidetasun ideologiko, erlijioso eta politikoak edukitzen dituzte taldearen ideiekin edo aldarrikapenekin. Pertsona horiek profil bereko talde batean edo talde gutxi batzuetan biltzen dira. Hala ere, gerta daiteke multzo edo talde ugari egotea. Hain zuzen, horixe da Espainiako eskuin muturreko terrorismoaren ezaugarri bereizgarria.

Hala, bada, ez zegoen ideologia horretako talde terrorista bakarra; aitzitik, eskuin muturreko terroristak atomizatuta zeuden: hainbat talde, sigla eta izendapen. Barne Ministerioak argitaratutako “Memoria eta Terrorismoaren prebentzioa” hezkuntza proiektuan adierazten denez, “*terrorismo hau hainbat taldetan zatituta egon zen: BVE (Batallón Vasco Español), Triple A (Alianza Apostólica Anticomunista) edo GAE (Grupos Armados Españoles)*”.

Batallón Vasco Español (BVE), Aliantza Apostoliko Antikomunista (Triple A), Espainiako Talde Armatuez (GAE) gain, Nafarroan egindako elkarrizketetan ezagutu genuen beste talde batzuk ere aritu zirela, hala nola, Guerrilleros de Cristo Rey (GCR), Adolfo Hitler Komandoa eta Anti Terrorismo ETA (ATE). Zatiketa



honi Ramón Pik “siglen basoa” deitzen dio, eta talde horiek nork osatzen zituzten jakitea zaila zela ohar-tarazten du, “Ultraeskuindar bortitzaren ezaugarrietako bat bere klandestinitatea delako”. Ezaugarri horri dagokionez, egileek berariaz aitortzen eta eskertzen dituzte Apirilaren 16ko Elkarteak urte haietan jardun zuten taldeen inguruan egindako oharrak eta iradokizunak.

Elkarrizketa batzuetan, zalantza batzuk sortu ziren erasoen egileak talde horietako batean sartuta ote zueden edo beren ekintzak modu pertsonalean egiten ote zituzten, beren ideologiagatik, sinesmenengatik edo iritzi politikoengatik. Elkarrizketatutako pertsonak, neurri handi batean, ez dute epai judizialik edo zigor-prozedurarik gertaera horien egiletza edo konplizitatea zehazteko, eta, beraz, jasandako eraso-uen ustezko erantzuleei buruzko iritziak eta sinesmenak adierazi zituzten. Egia esan, terrorismoaren biktimak osorik aitortzeari buruzko egungo 29/2011 Legeak ez du inolako arazorik planteatzen ezein taldetako kide ez diren pertsonak sortutakoak ekintza terroristatzat hartzeko. Hala dago araututa 3. artikuluan: “Lege hau aplikatuko zaie ekintza terrorista jasaten dutenei. Ekintza terrorista honela definitzen da: antolakunde edo talde kriminaletan sartuta dauden pertsonak egindakoa, baldin eta horien helburua edo xedea bada konstituzio-ordena iraultzea edo bake publikoa larriki asaldatzea. Aurreko lerrokadan adierazitako helburuak lortzeko ekintzek eragindako biktimei ere aplikatuko zaie, haien erantzuleak erakunde edo talde kriminal horietako kideak ez izan arren”. Beraz, ekintzen ustezko egileak talde jakin batean ez integratzea ez litzateke legezko zailtasuna izango elkarrizketatutako pertsona batzuei “terrorismoaren biktima izaera administratiboki aitortzeko”.

## 4. ESKUIN MUTURRAREN BIKTIMAK AITORTZEAREN INGURUKO ARAZOAK

### 4.1. AITORPEN MOTAK

NBEren 60/147 Ebazpenak «biktimatzat» hartzen du “giza eskubideen inguruko nazioarteko arauen urraketa nabarmena dakarten ekintzen edo ez-egiteen ondorioz, banaka edo taldeka, kalteak, lesio fisi-koak edo mentalak, sufrimendu emozionala, galera ekonomikoak edo oinarrizko eskubideen funtsezko ga-lerak jasan dituen pertsona oro (...)”. Xedapen horrek barne-zuzenbidera bidaltzen du (Espainian, 29/2011 Legea); horren arabera, “zuzeneko biktima baten hurbileko senideak eta haren ardurapeko pertsonak” ere biktimatzat hartzen dira.

Hala ere, NBEren ebazpen berak honako hau ezartzen du: “pertsona bat biktimatzat hartuko da baita urraketa egilea identifikatu, atzeman, epaitu edo kondenatu ez denean ere, eta egilearen eta biktimaren artean dagoen familia harremana gorabehera”. Nazioarteko gomendio hori Espainian zehaztu da laguntzak eta prestazioak aitortzeko baldintzak arautu direnean (29/2011 Legea, 3.bis artikulua). Bi kasu daude: a) epai irmoa dagoenean; b) epai irmorik ez egon arren, eginbide judizial egokiak egin direnean edo delituak epaitzeko prozesu penalak hasi direnean. Azken kasu horretan, “biktima edo eskubidedunaren izaera, ja-sandako kalteen garrantzia, egintza edo egitate eragilearen izaera, eta legez eskatzen diren gainerako beteki-zunak Zuzenbidean onargarria den edozein frogabideren bidez egiaztatzen ahalko dira Estatuko Adminis-trazio Orokorraren zeinahi organo eskudunen aurrean”.

Horretan datza eskuin muturreko talde terroristen biktimak legez aitortzeko arazoak ulertzeko gakoetako bat. Alde batetik, nazioarteko gomendioak dio biktimak biktima direla emaitza prozesala gorabehera. Es-painian, gomendio hori onartzen bada ere, ñabardura berezi bat txertatu da: Estatuak ematen dituen la-guntzak eta prestazioak eskuratzeko “aitorpena” erdietsi behar da, dela judiziala (epai irmoa egotea), dela administratiboa (Estatuko Administrazio Orokorreko organo eskudun baten ebazpenaren bidez).

Beraz, aipaturiko “aitorpena” (judiziala edo administratiboa) funtsezko baldintza da jasandako kalteen (fisikoak, psikikoak eta materialak) ordainak eta konpentsazio ekonomikoak eskuratzeko, bai eta lagun-tza-prestazioak (sanitarioak, psikologikoak, juridikoak, hezkuntzakoak) eskuratzeko ere. Era berean, beharrezkoa da gogobetetasun moraleko neurrien hartzaile izateko ere (omenaldiak, kondekorazioak, erakundeek antolaturiko oroitzapen eta memoria ekitaldietan aintzat hartzea...).

### 4.2. LEGEZKO AITORPENEAN ERAGINA DUTEN INGURUABARRAK

Legezko aitorpenean eragina duten inguruabarrak Espainian, eskuin muturreko taldeen biktimei egiten zaien «legezko aitorpenak» ez du bide errazik izan. Aurrean aipatu diren zailtasunak direla eta, esku ar-tean erabiltzen diren datuen urritasuna irrigarria da: esate baterako, Nafarroan elkarrizketatutako pertso-nen artean, bi kasutan baino ez da jaso Barne Ministerioko Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusiaren administrazio-ebazpena.

Aitorpen-urritasun horrek bi iturburu ditu:

**A) ATENTATUAK EGIN ZIRENEAN EZ ZEGOEN LAGUNTZEI BURUZKO ARAURIK.**

Gaur egun, Espainiak legeria ikaragarria du (estatuan eta autonomia erkidegoetan) terrorismoaren biktimak aintzatesteke eta haiei babes osoa emateko. Seguruenik, Espainian ematen diren prestazioei esker ekintza terroristek kolpatutako pertsonak eta haien senideek izan litekeen estaldurarik hoberena dute. Hala ere, egungo arau-esparrua ez da orain dela 50 urte indarrean zegoena.

Demokrazia Espainiara iritsi aurretik, terrorismoaren biktimentzako laguntzak, eskuarki, gizarte zibilak sustatzen zituen: ABC egunkariak (1975) diru-bilketa popularra egin zuen ordena publikoko indarren kide zenduen alargunen eta umezurtzen alde. Bildu zen dirua batzorde batek banatu zuen. Geroagoko diru-emariak kidego militar horiekin lotutako ongintzako erakundeei eman zitzaizkien.

Estatuaren laguntzak, aldiz, funtzionarioak ziren biktimek (zibilek zein militarrek) jasotzen zituzten Estatuaren pentsio publikoen sistemaren bidez. Horrez gainera, Estatuak biktimen aberriaren aldeko merezimenduak goraiatzeko zuten kondekorazio-sistema batez baliatuz. Erregimen frankistaren azken aldian, Terrorismoaren prebentzioari buruzko 10/1975 Lege Dekretu polemikoan ezarri zen Estatuak berariazko kalte-ordainak emanen zituela terrorismoak pertsonak egiten zizkien gaitz-galerengatik. Kalte-ordain horiek, baina, ez ziren zehaztu inongo xedapen juridikotan.

Arrazoi horiengatik, sarritan esan ohi da Estatuaren laguntzen lege-sorburua demokrazia iristearekin batera eratu zela. 1979an Herritarren Segurtasuna Babesteko 3/1979 Errege Lege Dekretuak xedatu zuen ekintza terroristetan jasandako kalteak ordaindu behar zirela (7. artikulua). Dekretu horren arauzko garapena 484/1982 Errege Dekretuak ekarri zuen. Bada, azken horrek Estatuaren aurrekontuetan txertatu zituen biktimentzako laguntzak, eta heriotzari nahiz gorputzeko lesioei zegozkien kalte-ordainak arautu zituen. Kalte-ordainen zenbatekoak Gizarte Segurantzaren legerian araututa zeuden antzeko kasuei jarraikiz ezartzen ziren. Horrela, Estatuaren laguntzak biktima bakoitzaren errenta mailaren arabera ziren.

Geroago, Banda armatuen eta elementu terroristen jardueraren aurkako 9/1984 Lege Organikoak eta 336/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduak laguntza sistema bat ezarri zuten, lanbide arteko gutxieneko soldataren moduluen arabera. Beste alde batetik, 21/1986 Estatuaren aurrekontu orokorreari buruzko Legeak eta 33/1987 Legeak ezarri zuten terrorismoaren ondoriozko aparteko pentsioak jasotzeko baldintzak eta haien zenbatekoak erregelamenduz zehaztuko zirela, eta aurreikuspen-sistema egokia aplikatuko zitzaiela. Horren ildotik bi dekretu aldarrikatu ziren: 670/1987 Legegintzako Errege Dekretua, Estatuaren Klase Pasiboen Legearen testu bategina onetsi zuena; 1576/1990 Errege Dekretua, abenduaren 7koa, Gizarte Segurantzaren sistemarentzat terrorismo ekintzen ziozko aparteko pentsioak ematekoa.

Arauei buruzko datu horiek erakusten dute ikertu den aldian (1975-1985) terrorismoaren biktimei laguntzeko xedapen juridiko bakarra Herritarren segurtasuna babesteari buruzko 3/1979 Errege Lege Dekretuaren 7. artikulua adierazpen orokorra izan zela. Xedapen hori 1982an garatu zen.

**B) GARAI HARTAN ONARTUTAKO LAGUNTZA-ARAUEN ATZERAERAGINA OSO EZTABAIDAGARRIA ZEN.**

3/1979 Errege Lege Dekretua garatu zuen 484/1982 Errege Dekretua 1982ko martxoaren 11n jarri zen indarrean. Heriotzaren eta lesioen ordaina emateko sistema dekretu hori indarrean jarri ondoko gertakarietarako ezarri zen. Hala ere, baimena eman zen araua *"izapidetzen ari ziren erreklamazioei"* aplikatzeko, eta batzuek ulertu dute horrela atzeraeragina ematen zaiola dekretuari, indarrean jarri aurreko kasuak ebazten ahal dira eta. Beste kasu bat ere onartu zuen: 1982ko martxoaren 11 baino lehen ebatzitako espedienteak berrikusi ahal ziren 484/82 Errege Dekretuaren eskakizunetara egokitzeko. Nolanahi ere, bi baldintza eskatzen ziren: 1) interesdunek eskatzea; 2) eskaera indarrean jarri ondoko hiru hiletan aurkez-

tea. Hau da, biktimak berak eskatu behar zuen laguntza-espeditentea berrikusteko, eta horretarako zeukan epea oso laburra zen.

Oro har, erreklamatzeko egintza urtebeteren buruan preskribatuko zela ezarri zen, erreklamazioa eragin zuen gertaeratik zenbatzen hasita. Lesioen kasuan, berriz, biktima erabat sendatzen zen egunetik aurrera zenbatu behar zen epea. Azkenik, jasadako kalteengatik hilez gero, berriro irekiko zen lesioengatik sortutako zenbatekoaren eta heriotzari zegokion zenbatekoaren arteko aldea kobratzeko epea.

Elkarrizketatutako pertsona bakar batek ere ez zuen laguntza horien berri izan, ez eta berrikusteko moduko laguntza-espeditentetik ere.

### **C) ORDAINAK ONARTZEKO, EZINBESTEKOA ZEN KALTEA JASANDAKOAK ESKAERA AURKEZTEA.**

Estatuaren ordainen sistema ez zen berez abiarazten atentatu bat gertatzen zenean. Ez zen jokatzeko gaur bezala; gaur egun, ekintza terrorista bat jazo ondotik "berehalako jarduketak" aktibatzen dira: laguntza psikologikoa, laguntza medikoa, informazioa, laguntza kontsularra...). 484/82 Errege Dekretuaren 5. artikulua ezartzen zuenaren arabera, ordaina jasotzeko, "alderdi batek hala eskatu" behar zuen administrazio-prozedurari buruzko legearen arauak jarraituz. Gero, eskaerak Barne Ministerioak (organo erabakitzaileak) ebatzi behar zituen.

Beraz, ez zegoen inolako legezko erregulaziorik administrazioari ahalmena ematen zionik ordaina emateko espeditentek ofizioz hasteko. Halaber, Barne Ministerioari ez zitzaion berriazko deirik ez eskaerarik egiten biktimen tutoretzarako lan proaktiboa eta aurre hartzekoa egiteko, gaur egun egiten den bezala.

### **D) ABIARAZI ZIREN PROZESU PENALAK EZ ZIREN ONEZ AMAITU.**

Oso deigarria da zein urriak izan diren polizia-ikerketen emaitzak aztertutako kasuetan.

Egintza kaltegarri nagusiak behar bezala salatu ziren, baina ezin izan zen argitu nortzuk izan ziren egileak. Poliziak ezin izan zion inori egotzi gertatutakoaren errua, eta jarduketak artxibatu ziren. Hortaz, egintza haietan kaltea jasan zuten pertsonak ezin dute frogatu epai judizial baten bidez biktimak direla, egileak eta haien konplizeak ez baitaude kondenatuta zigor-ebazpen baten bidez.

Kasuren batean, egileei Amnistia Legea aplikatu zitzaizen (Jurramendiko gertaerak). Hots, ez dago kondena-epai penalik. Atentatu hori zela eta Auzitegi Nazionalan administrazioarekiko auzi-prozesua egin zen eta hango aldeko epaiak ekarri zuen legezko aitorpena, hasierako administrazio-ebazpenak ukatu egin baitzuen atentatuaren aitorpena.

Beste gertakari batzuk (mehatxu-pintadak, kalte materialak eta beste) ez ziren behar bezala salatu. Elkarrizketatutako biktimek adierazi dute nahiko etsita zeudela salaketa egitean: gertaera larriagoen (kalte fisikoak, mehatxuak...) salaketak ezerezean gelditzen zirela ikusirik, pentsatzekoa zen beren salaketek ere amaiera bera edukiko zutela. Bestalde, 484/1982 Errege Dekretuak babesik gabe uzten zituen gauzetan edo ondasunetan egindako kalte-galerak; beraz, kalte materialek ez zuten estaldurarik.

### **E) TERRORISMOAREN BIKTIMEKIKO ELKARTASUNARI BURUZKO 32/1999 LEGEAK AITORPENA SUSTATZEN ZUEN, BAINA EPEMUGA ZORROTZA ZEUKAN.**

1999. urtean 32/1999 Legea onartu zen, terrorismoaren biktimekiko elkartasunari buruzkoa. Legea ETA banda terroristaren su-eten batean onartu zen, 1999an. Orduan pentsatzen zen ETAK ez zuela atentatu terrorista gehiagorik eginen eta bidezkoa zela, elkartasunagatik, biktima guztiei ordaina ematea, terrorismo-ekintzaren egilea zer talde zen kontuan hartu gabe (abertzale erradikalak, muturreko ezkerreko kideak, ultraeskuindarrak, jihadistak). Arau hark kalte-ordainen sistema berezia ezarri zuen, eta haren bidez aitorpen administratiboa lortzen ahal zuten ekintza terroristen ondorioz kalteak jasan zituzten per-

tsona guztiek. Halaber, araubide berezia sortu zuen hildako, zauritu eta bahituei kondekorazioak emateko. 1968ko urtarrilaren 1etik aurrerako denbora-eremua zuen. Horrela, lan honetan aztertu diren atentatuen biktimek (1975-1985) kalte-ordainak eta kondekorazioak jasotzeko eskaerak egiteko aukera zuten.

Lege horren hartzaileak zaurituak eta hildakoen senideak izan ziren. Beraren arabera, zigor-arloko kondena-epaia lortua zuten biktimek guztiek epaileek ezarritako zenbatekoa jaso behar zuten. Gainera, jaso beharreko zenbatekoa oso txikia izanez gero, handiagoak ezarri ziren legezko baremo baten arabera. Baremo hori epairik ez zutenei ere aplikatzen zitzairen; nolana ere, polizia jarduketak eta ikerketak egin behar zituen jasandako kalteei buruz. Dena den, elkarrizketatutako biktimekin kasuetan ez zegoen zigor-arloko kondena-epairik, eta artean oso gutxi ziren ikerketa abian zeukatenak.

32/1999 Legeak xedapen iragankor berezi bat zeukan: hartzaileek legearen erregelamendua indarrean hasten zenetik sei hilabete igaro baino lehen aurkeztu behar zuten zegoekieken diru kopurua emateko eskaera. Erregelamendua 1912/1999 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen eta 1999ko abenduaren 22ko BOEn argitaratu zen. Beraz, eskaerak aurkezteko epea 2000ko ekainaren 22an amaitu zen. Sei hilabeteko derrigorrezko epe horretatik kanpo aurkeztutako eskaera oro onartezintzat jo zen. Epea oso laburra izan zen eta, laguntzen berri zabaltzeko ahaleginak egin baziren ere (Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko eta Herritarrei Laguntzeko Zuzendariordetza Nagusiaren eta biktimekin elkarrean eskutik), ez zituzten biktimek guztiek jaso, eta heldu zirenak ez ziren garaiz heldu.

Kalte-ordainak emateko aparteko mekanismoa ezarri arren, 32/1999 Legeak ere ez zion Barne Ministerioari eskumenik eman kalte-ordainen espedienteak ofizioz hasteko. Horren arabera ere kaltetuen sei hilabeteko epea zuten eskaerak aurkezteko.

ETA banda terroristak su-etena amaitutzat jo zuen eta hilketa zein atentatu oldea etorri zen ondotik. Elkartasun Legea urtero-urtero luzatu behar izan zen, baina luzapen horiek ez zuten erreklamatzeko sei hilabeteko epea luzatzen. Atentatu terrorista berrien biktimek aparteko prestazioak erreklama zitzaketan, baina luzapenaren aurreko ekintzetan jotakoak ezin ziren baliatu aukera horretaz, ordurako amaituta zegoen epea aplikatzen zitzairen eta.

Egoera horrek ezinegona sortu zuen biktimekin kolektiboan, batez ere Legea aldarrikatu izanaren eta erreklamatzeko epearen berri eduki ez zutenengan. Egoera hori martxoaren 11ko 4/2005 Errege Lege Dekretuak onbideratu zuen; horren bidez sei hilabeteko aparteko epea eman zen 32/1999 Legeak ezarritako laguntzak eskuratzeko. Epe berriari esker, eskuin muturreko taldeen biktimekin aitortzen gabeek kalte-ordainezko prestazioak eskatu ahal izan zituzten. Talde horien biktimekin artean ere ez zuten eragin handirik izan. Gehienak ez zeuden beren interesak defendatzeko elkarte edo taldeetan sartuta.

#### **F) 29/2011 LEGEAK EPE BERRIA EZARRI ZUEN AITORTUTAKO BIKTIMEK PRESTAZIOAK ETA KALTE-ORDAINEN GEHIKUNTZAK ESKATZEKO: URTEBETE.**

2011. urtean onetsi zen terrorismoaren biktimekin aitortzeko eta haiei osoko babesa emateko legea, egun indarrean dagoena. Aplikaziorako denbora-esparrua zabaldu zuen, eta hori ideia bikaina izan zen. Hala, lege horrek 1960ko urtarrilaren 1etik aurrerako gertaerak hartzen ditu kontuan. Horren ildotik, ezinbestekoa zen kalte-ordain eta prestazioen aitortpena erreklamatzeko eskaera berriak modu formalean onartzea.

Urtebeteko epea ezarri zen erantzukizun zibileko laguntzak eta kalte-ordainak lehenago ere jaso izanagatik biktimekin izaera aitortuta zeukatenentzat. Horren arabera, lehenik jasotako zenbatekoen eta legezko baremo berrien arteko aldea eskatzen ahal zen (berriak nabarmen handiagoak ziren). 671/2013 Errege Dekretuaren Erregelamendua 2013ko irailaren 18an argitaratu zen. Beraz, epea 2014ko irailaren 18an bukatu zen.

Eskuin muturreko taldeen biktimek kalte-ordainen gehikuntza horiek jaso zitzaizkien; izan ere, atentatuak gertatu ziren urteetan, laguntzen zenbatekoak Espainiako laguntza-sisteman inoiz arautu diren txikienak izan ziren. Hala ere, aukera horretaz baliatu ahal izateko honako baldintza hauek bete behar ziren: biktima-aitorpena eduki behar zen, jasotako kalte-ordainaren zenbatekoa baremoaren arabera baino gutxiago izan behar zen, eta eskaera urtebeteko epearen barruan aurkeztu behar zen. Arestian esan dugun bezala, kopurua arras txikia zen.

29/2011 Legea aldaketa nabarmen eta eztabaidagarria egin zitzaion aldarrikatu eta gutxira.

**G) 29/2011 LEGEA AURREKONTU-ARAU BATEN BIDEZ ALDATU ZEN: LAGUNTZEN AITORPENAREN ETA INDARKERIAZKO DELITUEN BIKTIMENTZAKO KALTE-ORDAINEI BURUZKO EUROPAKO HITZARMENAREN PRINTZIBIOEN ARTEKO LOTURA.**

2012ko abenduan funtsezko aldaketa egin zen terrorismoaren biktimentzako kalte-ordainen Espainiako sisteman. Mariano Rajoyren Gobernuak 2013ko aurrekontuen legearen proiektuaren 3.bis artikuluari paragrafo bat gehitu zion; hona, hitzez hitz: "Indarkeriazko delituen biktimei kalte-ordainak emateari buruzko Europako Hitzarmenean kalte-ordainak jasotzeko ezartzen diren printzipioak bete beharko dira lege honetan aitortzen diren laguntzak eta prestazioak emateko". Aldaketa hori Alderdi Popularrak Diputatuen Kongresuan zeukan gehiengo osoari esker onartu zen; azkenean, Estatuko 2013ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 17/2002 Legearen Azken Xedapenetako Hogeita Zazpigarrena izan zen.

Hitzarmen hori Estrasburgon sinatu zen 1983ko azaroaren 24an (2001eko apirilaren 29ko BOEn argitaratu zen hitzarmena berresteko tresna), eta 2002ko otsailaren 1ean hasi zen indarrean Espainian. 8. artikulua honako hau ezartzen du:

- “1. Kalte-ordainaren zenbatekoa biktimak edo eskatzaileak delitua egin aurretik, bitartean edo ondoren izandako jokaeraren zioz murriztu edo kendu ahal izanen da, bai eta egindako kaltearen arabera ere.
2. Era berean, kalte-ordaina murriztu edo kendu ahal izanen da, biktimak edo eskatzaileak delinkuentzia antolatuan parte hartzen bada edo indarkeriazko delituak egiten dituen erakunde bateko kide bada.
3. Gainera, kalte-ordaina murriztu edo kendu ahal izanen da, erreparazio osoa edo partziala justiziaren edo ordena publikoaren aurkakoa bada”.

Europako Hitzarmenari buruzko aipamenaz gain, beste aldaketa eztabaidagarri bat ere egin zen: ez zen hasiko ondorioak sortzen aurrekontuen legea indarrean jartzen zenean; aitzitik, atzeraeragina izanen zuen ("2011ko irailaren 23tik aurrera sortuko ditu ondorioak"). Aurrekontuen aldaketak astindu ederra eman zion 29/2001 Legea aldarrikatzea ahalbidetu zuen Parlamentuko akordio zabalari (340 aldeko boto).

Gehitutako paragrafoa 2013-14 urteetan egindako eskaerei aplikatzeaz gainera, Barne Ministerioak, atzeraeraginaz baliaturik, jatorrizko testuaren arabera aurkeztutako eskaerak ere ezetsi zituen. Batzuek ikuspegi formaletik kritikatu dute erabaki hori, eta beste batzuek prozedurari, laguntza-politikari eta memoriari erreparatuta gaitzetsi dute.

Biktima batzuen senitartekoen eskaerak ezetsi dira, ETA talde terroristarekin lotura zutelakoan, nahiz eta ez egon epai irmorik biktima erakunde terrorista horretako kidea izan dela edo lagundu diola ezartzen duenik. Errugabetasun-presuntzioaren printzipioa urratu dela alegatu da, horretarako berariaz egindako polizia-txostenak erabili baitira berez ebazpen judizial baten bidez frogatu behar diren delitu-egitateak egiaztatzeko. Halaber, administrazio zuzenbidearen oinarriko printzipioak urratu direla salatu da: konfiantza legitimoaren printzipioa; onartutako administrazio egintza irmoak ukiezinak izatea; aurretiazko

administrazio-ebazpenak errespetatzea. Eta, batez ere, honako hauek kritikatu dira: terrorismoaren biktimei artean gertatzen den konparaziozko bidegabekeria nabarmena, biktimei arretea emateko Espainiako politikaren sakoneko aldaketa, eta aitorpenari eta erreparazioari buruzko nazioarteko gomendio eta iradokizunen urraketa.

Guztiz ere, gaia oso korapilatsu eta labaina da, Auzitegi Nazionalaren epai askok berretsi egiten baitituzte Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusiaren administrazio ebazpenak, eskaerak ezetsi zituztenak Indarkeriazko Delituen Europako Hitzarmenaren printzipioak aplikatuta.

Aurrekoa gutxi balitz, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (GEEA) Espainiaren erabakia babestu du, ezetsi egin baititu Batallón Vasco Español (BVE), Grupos Antiterroristas de Liberación (GAL), Acción Nacional Española (ANE) edo Grupos Armados Españoles (GAE) talde terroristek 1979tik 1985era Frantziako hildako biktimei hamar senidek aurkeztutako bi demanda. Senideek Giza Eskubideen Europako Auzitegiari jo zuten, Auzitegi Nazionalak 2015ean berretsi zuenean Barne Ministerioaren ebazpena, zeinaren bidez kalte-ordaina jasotzeko eskubidea ukatzen zitzaien. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak aho batez emandako epaiak (75529/16 eta 79503/16 demandak) honako hau onartzen du: *“Froga-arauek eta administrazio-organoen aurreko frogabidearen kargak ez dute zertan prozedura penal baten esparruan aplikagarri direnen berdinak izan”*.

#### **H) TERRORISMOAREN BIKTIMEI LAGUNTZA ETA BABESA EMATEARI DAGOKIONEZ, PARLAMENTUAK EZ DU GOBERNUAREN JARDUNA KONTROLATZEN.**

29/2011 Legeak aldeko boto asko bildu ahal izan zituen Diputatuen Kongresuan —legealdi bereziki zail batean—, talde politiko guztien proposamen modura aurkeztu zelako. Jose Luis Rodríguez Zapateroren Gobernuak testuaren zirriborroa landu zuen, baina ekimena gainerako talde parlamentarioekin partekatzea erabaki zuen. Hala, testuaren egileek parte hartze politikoa ahalbidetzeko eta Gobernuaren ekintza kontrolatzeko mekanismoa asmatu zuten, terrorismoaren biktimei laguntzeari dagokionez (63. artikulua).

Ezarri zen Barne Ministerioak, erakundeen aholkularitza, ebaluazio eta lankidetzaren funtzioak betetzeko, txostenak, azterlanak eta jarduteko proposamenak eginen zituzten terrorismoaren biktimei laguntzeko esparruan. “Terrorismoaren biktimei egoerari buruzko” txosten horiek legea erreformatzeko beharra nabarmenduko zuten, hartutako babes neurriek terrorismoaren biktimei dagozkien babes-maila gorenaren bermatu ahal izateko. Azterlan eta txosten horiek egiteko, autonomia-erkidegoen, toki-erakundeen, gizarte-eragileen eta biktimei elkarrekin parte hartzea sustatu zen. Hala, Legean ezartzen da Barne Ministerioak urtero terrorismoaren biktimei kolektiboaren egoerari buruzko txostena bidali behar duela Parlamentura, bai eta jarduteko proposamena ere, bidezkoa izanez gero. Erregelamendu bidezko garapenean, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Fundazioari agindu zitzaion biktimei elkarrekin egindako azterketak bideratzeko. Txosten hori urteko azken hiruhilekoan aurkeztu behar zitzaion Legebiltzarrari.

Horrela, Parlamentuan bertan, terrorismoaren biktimei kolektibo osoaren unean uneko egoeraren jarraipena eta kontrola egin zitezkeen, eta horren arabera proposamenak aurkeztu. Legea proposatu zuten talde politikoek ziurtatu zuten ekimen hura, derrigorrezko arau juridiko gisa emanda, ez zela 2011. urtean ezarritako arautegira mugatzen, eta mekanismo malgua gaitzen zuela biktimei egoera ezagutzeko eta, behar zenean, jarduketa-proposamenen bidez hobetzeko.

Asmo zintzoak izan arren, manu hori ez da bete legea onetsi zenetik. Ez da egin legegileak xedatutako txosten bat bera ere. Ondorioz, Parlamentuan ez da eztabaidatu legea erreformatu beharrik dagoenez biktimei babes-maila ahalik handiena bermatzeko.

Aitzitik, lege-aldaketa nabarmen eta eztabaidagarria gertatu da (paragrafo bat gehitu zaio 3 bis artikuluari, indarkeriazko delituen biktimentzako kalte-ordainei buruzko Europako Hitzarmena aplikatzeko). Aldaketari atzeraeragina eman zitzaion, eta horretarako aurrekontu-araua erabili zen, talde politiko batek Parlamentuan zeukan gehiengo osoari esker onartua (2012).

Horrek eragina eduki du eskuin muturreko taldeen terrorismoaren biktimak aitortzeko eta babesteko aukeretan, haien egoera zehatza ezin izan baitzen eztabaidatu Parlamentuan. Eta hori, gainera, honako hau ezarri arren: “autonomia-erkidegoen parte hartzea bultzatuko da”. Inolako ezbairik gabe, aukera eman baltz, hainbat autonomia-erkidegotako gobernuek (Madrilgoak, EAekoak, Nafarroakoak eta Kataluniakoak, esaterako) eztabaidan parte hartuko zuten, biktimetako asko lurralde horietan bizi baitira.



## 5. ESKUIN MUTURRAK NAFARROAN (1975-1985) EGINDAKO ATENTATUEN ZERRENDA (GUTXI GORABEHERA)

Beheko taulako zerrenda gutxi gorabeherakoa da; ez daude zehaztuta atentatu guzti-guztiak. Aurrean azaldu bezala, eskuin muturreko taldeen indarkeriazko ekintza asko zigorrik gabe geratu ziren, ez baitzen egon ez salaketarik, ez prozedura judizialik. Datu batzuk biktimek emandako testigantzetatik bildu dira.

Oharra: Ez dira ematen zaurituen eta mehatxatuen izenak. Hildako eta desagertutako pertsonenak bakarrik jaso dira. Norbaitek beste gertaeraren baten berri badauka edo xehetasunen bat edo informazioa eman nahi badu, mesedez, jarri harremanetan Nafarroako Gobernuako Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiarekin.

ESKUIN MUTURREKO TALDEEK NAFARROAN (1975-1985) EGINDAKO ATENTATUEN ZERRENDA (GUTXI GORABEHERA)		
DATA	DESKRIBAPENA	USTEZKO TALDEA/EGILEA
1976/02/16	Iruñeko El Parnasillo liburu-dendaren aurkako atentatua.	Guerrilleros de Cristo Rey
1976/03/10	El Parnasillo liburu-denda metrailatu zuten.	Guerrilleros de Cristo Rey
1976/03/10	Iruñeko Aritza liburu-dendaren aurkako atentatua.	Guerrilleros de Cristo Rey
1976/05/09	Jurramendiko (Lizarra) atentatua. Karlismoaren urteroko kontzentrazioaren aurkako eraso. Bi pertsona tiroz hilak: Aniano Jiménez Santos eta Ricardo García Pellejero. Lau zauritu izan ziren suzko armaz eta hainbat lagunek kontusioak izan zituzten.	Triple A, Fuerza Nueva, Guerrilleros de Cristo Rey, falangistak eta beste talde ultra batzuk. Egileetako batzuk identifikatu zituzten (Amnistiaren urriaren 15eko 46 / 1977 Legea aplikatu zitzaizen).
1976/09/01	Hiltzeko mehatxuak egin zizkieten Punto y Hora de Euskal Herria aldizkariaren zuzendariari.	Ezezaguna
1976/12/11	Alderdi Karlistaren idazkari nagusiaren autoari eraso egin eta hiltzeko mehatxuak egin zizkieten idazkariari, Iruñean.	Ezezaguna
1977/10/05	Lehergailua jarri zuten Punto y Hora de Euskal Herria aldizkarian, Iruñean.	Triple A
1978/02/12	Iruñeko El Parnasillo liburu-denda erre zuten.	Comando Adolfo Hitler
1978/04/12	El Lebril Blanco antzerki taldearen aurkako leherketa, Iruñean.	Ezezaguna
1978/05/10	Hogei bat tiro jaurti zituzten Iruñeko LKIn egoitzaren aurka.	Ezezaguna
1978/05/31	Altasuko bizilagun baten etxearen aurkako atentatua.	ATE
1978/07/10	Alegría de Iruña peñaren aurkako lehergailua.	Acción Nacional
1978/08/08	Tuterako Muskaria elkartearen aurkako molotov koktela.	Ezezaguna
1978/09/10	Iruñeko Jarauta Kaleko Lacalle tabernari eraso. Ateak hautsi zituzten, harriak erabili zituzten eta ke poteak. Kaputxadunak sartu ziren. Kolpeak eta kontusioak.	Guerrilleros de Cristo Rey
1979/03/27	Iruñeko Jarauta Kaleko Lacalle tabernaren aurkako lehergailua.	Acción Nacional Española (Diario de Navarra) arabera) BVE ("El País" egunkariaren arabera)
1979/06/08	Gladys del Estalen heriotzari eta Ordena Publikoaren Indarren Tuterako ekintzari buruz deklaratu zuen udaltzainaren autoaren gurpilak zulatu zituzten eta autoa gorriz margotu zuten.	Ezezaguna

1980/06/11	José Miguel Etxeberria Alvarez iruindarra desagertu zen Frantziako hegoaldean.	BVE
1980/10/12	Lehergailu batek eztanda egin zuen Iruñeko Comedias kalean, Espainiako Alderdi Komunistaren (PCE) egoitzan. Comedias kaleko eraikin berean zegoen Viajes Vincit SA enpresako langile bat, emakumezkoa, zauritu zuten.	Triple A
1980/10/12	UGT sindikatuaren egoitzaren aurkako lehergailua, Iruñean. Bi lagun zaurituta.	Triple A
1981/12/17	Altsasuko ezker abertzaleko militante baten aurkako bonba-pakete bidalketa (100 gr exogeno zituen lehergailua, puru kaxa batean ezkutatua bidali zuten)	Ezezaguna
1981/12/17	Antzeko bonba-pakete (100 gr exogeno zituen lehergailua, puru kaxa batean ezkutatua bidali zuten) bidalketa Etxarri Aranatzeko zinegotzi baten aurka	Ezezaguna
1981/12/30	Ezkerreko zinegotzi baten autoa erre zuten, Tafallan.	Ezezaguna
1982/08/20	Tafallako ikastolako tabernari su eman zioten.	Ezezaguna
1982/10/12	Autoetako 40 gurpil zulatu zituzten, Etxarri Aranatzen.	BVE
1983/04/15	Iruñeko EAJ alderdiaren egoitzako ikurrina erre zuten.	Ezezaguna
1983/05/12	Ezker abertzaleko militantearen aurka bigarren eraso zapuztua (aurrekoa 1981/12/17an izan zen). Bere autoan 500 gr Goma 2 zuen bonba-tranpa jarri zuten (atzeko aldeko eserlekuko estalkiaren ondoan, "pintza" batez itsatsia). Artezilariek aipatu zutenenez, autoa martxan jarri izan balitz edo aurreko gurpilak mugitu izan balira, lehergailua aktibatu egingo zen. Ibilgailua zela batean suntsitu zuten. Altsasun gertatu zen.	Ezezaguna
1983/08/04	Atarrabiako Etxe Beltza elkarteari eraso egin zioten.	Ezezaguna
1984/02/08	Ángel Gurmino Lizarraga (Olaztikoa) hil zuten Hendaian, Frantzian.	GAL 17/1995 sumarioa 5. IEZ Auzitegi Nazionala Largetsi eta artxibatu zuten. 2003-11-12
1984/12/09	Iruñeko HARTZA jatetxearen aurkako atentatua. Jabeetako bat larriki zauritu zuten, bala batek jota. Aurretiaz, mehatxuak egin zizkieten jatetxeko jabeei.	Ezezaguna.
Data zehaztu gabe	Altsasuko Imaz Liburudenda - Loteria Administrazioaren aurkako eraso. Mehatxuzko pintadak egin eta beirateak hautsi zituzten zenbaitetan. Zelatan eta atzetik segika izan zituzten identifikatu gabeko eta auto partikularrak erabiltzen zituzten pertsonak. Liburudendan sartu ziren kalte materialak eraginez.	Ezezaguna

(\*) Oharra: 2021/03/21ean eguneratutako taula. Aldaketaren bat, zerbait gehitzeko edo zuzentzeko proposatu nahi izanez gero, jakinarazi Nafarroako Gobernuko Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiari.

#### LABURPEN-TAULA

Kalte materialak	23 atentatu
Zaurituak	8 pertsona
Hilak	3 pertsona
Desagertuak	1 pertsona
Mehatxatuak	Ezin zenbatu, ekintzak era askotakoak izaki (pintadak, lokaletan eragindako kalteak, bonba-paketeak, lehergailuak ibilgailuetan...)

## 6. AZKEN HITZA

Gure ikerlanaren eragozpen nabarmenetako bat izan da biktima batzuek oraindik ere ez dutela jaso Espainiako Gobernuko Barne Ministerioaren administrazio-aitorpena. Halaber, kasu askotan, ez da abiatu zigor-arloko prozesurik, egileak identifikatu ez direlako edo 1977ko Amnistiaren Legea aplikatu zaialako.

Nolanahi ere den, erakunde eskudunek biktima izaera ez aitortzeak ez du eragozten pertsona horiek biktimatzat hartzea. Izan ere, biktima da —noizbait aitortpena jaso zein ez— *“kalteak jasan dituen pertsona oro, banaka edo taldeka, lesio fisikoak edo mentalak, sufrimendu emozionala, galera ekonomikoak edo oinarrizko eskubideen funtsezko galerak, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen urraketa nabarmena edo nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larria dakarten egite edo ez-egiteen ondorioz. Hala behar denean, eta barne zuzenbidearekin bat etorritik, “biktima” terminoak bere baitan hartuko ditu, gainera, hurbileko familia edo zuzeneko biktimaren ardurapean dauden pertsonak, bai eta arriskuan dauden biktimei laguntza emateko edo biktimizazioa eragozteko esku hartzean kalteak jasan dituzten pertsonak ere”*. Biktima halakotzat hartuko da *“bortxazko ekintzaren egilea identifikatu, atzeman, epaitu edo zigortu duten kontuan hartu gabe”* (60/147 Ebazpena, NBEren Batzar Nagusia).

Gizarte zatituetan, nabarmendu behar da *“egia dialogikoa”* bilatuz soilik eraiki daitekeela memoria kolektiboa, demokratikoa, adiskidetzekoa eta bizikidetzakoa; izan ere, gizarte horietan hainbat talde edo sektore sozial aurrez aurre daude eta biktimizazioak eragin dituzte, eta, hortaz, baita narrazio eta memoria alternatiboak ere, eta elkarren lehian aritzen diren biktima taldeak ere badaude (Competitive Victimhood), beste talde batzuek baino sufrimendu handiagoa jasan dutela argudiatzen dutenak (Sachs, 2012). Egia hori jendearen arteko komunikaziotik sortzen da, eta hainbat kontakizun ezagutzeko eta eztabaidatzeko aukera ematen du. Elkarrizketaren helburua iragan hurbilean gertatutakoaren gutxieneko ulermen bateratua lortzea da, honako ideia edo ildo honi jarraikiz: *“Lehiatzen diren narratibak nolabaiteko konpromisora ekarriko dituen neurritasunik gabe, gizartea mingostasunez zatituta egonen da, eta bakea eta egonkortasuna oso hegazkorrak izanen dira”* (Lecamwasam). Ildo horretan, Nafarroako gizartearen sektoreen arteko bizikidetzak demokratikoa, bakea eta adiskidetzak bermatzen dituen gutxieneko eta baterako elkar aditzea memoria kolektibo inklusibo batetik abiatu behar da, eta gure erronka izan behar da terrorismoaren eta motibazio politikoko indarkeriaren biktima guzti-guztiak aitortzea, geroko gogoetak alde batera utzita.

Orain azken oharra egin behar da. Ikerlan honetan ez da iritzirik ematen pertsona batzuk aldi berean biktima eta biktimagilea izateaz, eta ez da inor horregatik baztertu. Horren haritik, indarkeria jasan duten pertsona guztiak biktimak dira, are ustez talde terrorista bateko kideak direnak ere. Biktima nor den 60/147 NBE Ebazpenean ematen den definizioak zehazten du: *“banakako edo taldeko kalteak, lesio fisikoak edo mentalak, sufrimendu emozionala, galera ekonomikoak edo oinarrizko eskubideen funtsezko galerak jasan dituen”*, edo haren *“hurbileko senitartekoak”* zein *“zuzeneko biktimaren ardurapeko pertsonak”*, bai eta *“arriskuan dauden biktimei laguntza emateagatik edo biktimizazioa eragozteagatik kalteak jasan dituzten pertsonak”* ere. Alde horretatik, uste dugu biktimen eta biktimagileen arteko zatiketa lausoa dela trantsizio-inguruneetan (biktima asko aldi berean biktimagile ere badira) eta, gainera, polarizatzailea eta kaltegarria ere bai. Gure iritziz ezin zaie ukatu biktima-izaera ustez talde terrorista bateko kide izan direnei. Galo Bilbaok dioen bezala, *“bada biktimagile terroristaren figura bat, aldi berean terrorismoaren biktima*

*ere badena —aurretik edo ondoren—. Batera zein bestera (biktima izan dena biktimagile bihurtzea edo biktimagilea —damutua zein ez, erretiratuta zein jardunean— biktima bihurtzea), subjektuari biktima-izaera aitortu behar zaio. Hori egiteko arrazoi etiko nahikoak daude, borreroak eta haien indarkeria jasan dutenak berdintzat jo eta nahasmenduan erori gabe, gainerako biktimak iraindu eta mindu gabe” (Bilbao Alberdi, 2009).*

## 7. BIBLIOGRAFIA

- ADELMAN, L., LEIDNER, B., ÜNAL, H., NAHHAS, E., & SHNABEL. "A WholeOtherStory: Inclusive Victimhood Narratives Reduce Competitive Victimhood and Intergroup Hostility", *Personality and Social Psychology Bulletin*, 42. lib., 2016, 1416.-1430. or.
- APARICIO RODRÍGUEZ, VÍCTOR. "La violencia política en la historiografía sobre la Transición", *Vínculos de Historia*, 6. zk., 2017.
- BAR-TAL, D., CHRNYAK-HAI, L., SCHORI, N. & GUNDAR, A. "A Sense of Self-perceived Collective Victimhood in Intractable Conflicts", *International Review of the Red Cross*, 91. lib., 2009, 229.-258. or.
- BENEGAS, JOSÉ MARÍA. *Diccionario Espasa: Terrorismo*. 2004.
- BILBAO ALBERDI, GALO. *Jano en medio del Terror. La Inquietante Figura del Victimario-Víctima*, Escuela de Paz-Bakeaz, Bilbo, 2009.
- CARCEDO, DIEGO. "SÁENZ DE SANTA MARÍA. El general que cambió de bando", *Temas de hoy*, 2004.
- CASALS I MESEGUER, XAVIER. "La tentación neofascista en España", Plaza & Janes, 1998; "La transición española. El voto ignorado de las armas", *Pasado & Presente*, Bartzelona 2016.
- CUBERO SÁNCHEZ, JOAQUÍN. "Montejurra 76 en el contexto de los años de plomo", hainbat egile, "Montejurra 1976-2006", Ediciones Arcos, Madril, 2006.
- EUSKO JAURLARITZA. "Talde inkontrolatuek, eskuin muturreko taldeek eta GALEk eragindako terrorismoaren biktimei buruzko txostena", *Herrizaingo Saila*, 2008.
- GONZALEZ SÁEZ, JUAN MANUEL. "La violencia política de la extrema derecha durante la transición española (1975-1982)", *Nafarroako Unibertsitatea*.
- GUISSMÉ, L. DE. & LICATA, L. "Competition Over Collective Victimhood Recognition: When Perceived Lack of Recognition for Past Victimization is Associated with Negative Attitudes towards Another Victimized Group", *European Journal of Social Psychology*, 47. lib., 2017, 148.-166. or.
- HOFFMAN, BRUCE. *A mano armada. Historia del terrorismo*, Espasa Calpe. 1999
- LECAMWASAM, N.O. "Justice in Divided Societies: The Role of Competing Narratives in Sri Lanka's Transitional Justice Landscape", *The South Asianist*, 5. lib., 1. zk., 345.-365. or. 2017.
- ESPAINIAKO BARNE MINISTERIOA, HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA, TERRORISMOAREN BIKTIMEN OROIMEN GUNEA, TERRORISMOAREN BIKTIMEN FUNDAZIOA. «El terrorismo en España». "Memoria y prevención del Terrorismo" hezkuntza-proiektua. 1. unitate didaktikoa. Geografía eta Historia, DBH4. 2018.
- Nieburg, H. L. *Political Violence*, Nueva York, St. Martin's Press, 1969.
- NOOR, M., SHNABEL, N., HALABI, S.; & NADLER, A. "Over coming Competitive Victimhood and Facilitating Forgiveness Through Re-categorization into a Common Victim or Perpetrator Identity", *Journal of Experimental Social Psychology*, 49. lib., 2013, 867.-877. or.
- NOOR, M., SHNABEL, N., HALABI, S., & NADLER, A. "When Suffering Begets Suffering: The Psychology of Competing Victimhood Between Adversarial Groups in Violent Conflicts", *Personality and Social Psychology Bulletin*, 16. lib., 2012, 351.-374. or.
- PI, RAMÓN. *¿Qué es la ultraderecha?* Biblioteca de Divulgación Política, La Gaya Ciencia argitaletxea, 1976. Lan horretan ageri diren argazkiak *Diario de Barcelona* artxiboarenak, Víctor M. Armengolenak eta Europa Pressenak dira.

POWELL, CHARLES. *“España en democracia, 1975-2000”*. Plaza & Janes 2001

PRESTON, PAUL. *“La política de la venganza. El fascismo y el militarismo en la España del siglo XX”*. Ediciones Península, Bartzelona, 2014.

PURROY, MIRENTXU. *Punto y Hora de Euskal Herria* aldizkaria. Partido Carlista, Informe Montejurra 76.1977.

SACHS, A. *“Different Kinds of Truth: The South African Truth and Reconciliation Commission”*, ENWEZOR, O., BASUALDO, C., BAUER, U.M., GHEZ, S., MAHARAJ, S., NASH, M. & ZAYA, O. (arg.), *Experiments with Truth: Transitional Justice and the Processes of Truth and Reconciliation*, Ostildern-RuitHatje Cantz Verlag, Berlin, 2002.

SAGEMAN, MARC. *Missunderstanding Terrorism*, Philadelphia: University of Pennsylvania Press. 2016.

SÁNCHEZ SOLER, MARIANO. *“La transición sangrienta”*. Ediciones Península, Bartzelona, 2010.

SANTOS JULIÁ. *Transición; “Historia de una política española (1937-2017)”* Crítica. Bartzelona 2017.

SOPHIE BABY. *“El mito de la transición pacífica”*. Akal arg., 2018.

